

ETORKIZUNA ARGITZEA

HEZKUNTZAN INBERTITZEA UMEEN
POBREZIAREN AURKA BORROKATZEA DA

EUSKADI



Save the Children

**SAVE THE CHILDRENEK 120 herrialde baino gehiagotan lan egiten du.
Umeen bizitza salbatzen dugu. Haien eskubideengatik borroka egiten dugu.
Haien ahalmena garatzen laguntzen diegu.**

Kordinatzailea:

Ana Sastre Campo

Egileak:

Violeta Assiego

Thomas Ubrich

Save the Children Italiako **“La lampada di Aladino”** txostenetik abiatuz, “Equidad Educativa” indizea eta politika publikoen analisia Save the Children Espainiarako Abay Analistas Económicos y Sociales-ek (María Isabel Martínez, Isabela Fernández y Nuria Guillo) egindakoa izan da.

2015eko martxoa

Argazkiak:

© Alba Lajarín /Save the Children

Infografiak:

Cristina Jardón

Artea eta maketazioa:

Óscar Naranjo Galván

ZriBis

Itzulpenak:

Maramara

ETORKIZUNA ARGITZEA

HEZKUNTZAN INBERTITZEA UMEEN
POBREZIAREN AURKA BORROKATZEA DA

EUSKADI



Save the Children

AURKEZPENA

“Ume batek, irakasle batek, liburu batek eta luma batek mundua aldaraz dezakete. Hezkuntza da irtenbide bakarra.”

Malala Yousafzai, ikasle, ekintzaile eta blogari pakistandarra.
2014ko Bakearen Nobel Sariaren irabazlea.

Save the Children erakundeak 20 urte baino gehiago eman ditu Espainian umeei zuzendutako programak gauzatzeko. Egutero, pobrezia eta gizarte-bazterkeriako arriskua jasaten dituzten 5.000 neska-mutili baino gehiagori laguntzen diegu, beren egoera ez dadin beren potentziala osorik garatzeko oztopo izan. Pobrezia-egoeran hazteak ez du eraginik izan behar umeen bizitzako aukeretan. Umeei eta familiek jasotzen duten laguntzaren bidez oinarritzeko beharrak estalita edukitzeaz gain –elikadura, jantziak eta etxebizitza-, eskubideak bermatuta edukitzea ere behar dute, bereziki, pobreziatik irteteko eta gizartean aktiboki parte hartzeko gaitasunak eta trebeziak ematen dizkieten horiek. Hezkuntza da eskubide funtsezkoenetako bat, umeen garapen fisikoa, kognitiboa, emozionala eta soziala sustatzen duelako eta etorkizunean pertsonalki errealizatuta sentitzeko tresnak ematen dizkielako.

Europako herrialde guztietan, Espainian barne, neska-mutilen pobrezia-edo bazterkeria-arriskua beren eta gurasoen hezkuntza-mailarekin oso lotuta dago.¹ Gizarte- eta ekonomia-koherentsia helburu dituen gizarte aurreratuen oinarrietako bat berdintasunezko hezkuntza lortzea izan behar da. Berdintasunezko hezkuntzaren abiapuntua da pertsona guztiak, alde soziokulturalak eta sozioekonomikoak gorabehera, jakintzak eta trebetasunak ikasteko aukera bera izatea. Hezkuntza-ekitateak pertsonen arteko aldeak lausotzeko tresna izan behar du, eta guztiei hezteko eskubideaz aukera-berdintasunez gozatzeko aukera eman behar die.

Andaluzian, Katalunian, Valentziako Komunitatean, Madrilen eta Euskadin abiarazi ditugun programen helburua da, hezkuntzaren bidez, belaunaldien artean pobrezia transmititzeko zikloa deuseztatzea. Umeei bizitzetan benetako aldaketa iraunkorrak bermatzeko eskola-absentismoa eta eskola garaiz aurretik uzten dutenen kopurua txikitzen eta eskola-errendimendua hobetzen saiatu behar dugu. Egutetik egunera egiaztatzen dugu pobrezia

¹ Pobreza infantil y exclusión social en Europa. Una cuestión de derechos (Umeei pobrezia eta gizarte-bazterkeria Europan. Eskubide-arazoa) txostena. Save the Children, 2014.

eta bazterkeriak umeen bizitzetan duen inpaktuari aurre egiteko erantzun integralak behar direla, familiei ekonomikoki laguntzeko ez ezik, umeen garapena arlo guztietan ahalbidetzeko. Umeen pobrezia zirkulua gizarte-babesari, etxebizitzari, osasunari eta hezkuntzari buruzko politiken bidez soilik hautsi daiteke, hain zuzen ere, umeak irtenbideen eta neurrien jomugan jartzen dituztenen bitartez.

Europako Batzordearen *Invertir en la infancia: romper el círculo de las desventajas* (Umeetan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea) txostenak nabarmentzen duen bezala, umeetan inbertitzea gainerako adin-taldeetan inbertitzea baino askoz ere eraginkorragoa da. Agiri horrek herrialdeak bultzatzen ditu² neska-mutilek eta familiek babesaren, etxebizitzaren, osasunaren eta hezkuntzaren arloko kalitatezko zerbitzu egokiak jasotzen dituztela bermatzera. Horretarako, «hezkuntza-sistemek aukera-berdintasunean duten eragina hobetu behar dute, desabantailen zikloa apurtzeko, eta ume guztiek kalitate handiko heziketa inklusiboa jaso dezaketela bermatu behar dute, haien garapen emozionala, soziala, kognitiboa eta fisikoa garatzen duena».

Txosten honen bitartez, Save the Children erakundeak umei buruzko politiken egungo joeran aldaketa eragin nahi du, eta hezkuntzan oinarritu, hark gizarte-bazterkeria jasaten dutenei ekitatea nola bermatzen dien aztertzeko. Umeek jasaten dutena da pobrezia motarik kaltegarriena, baita gizartean ekitate falta gehiena sortzen duena ere. Horregatik, premiazkoa da Euskadiko bost umetatik batek eta Espainian hiru umetatik batek jasaten duten gizarte-desabantailaren zikloei buelta ematea.

Andrés Conde, Save the Children España erakundearen zuzendari nagusia

² Europako Batzordearen 2. gomendioa, 2013ko otsailaren 20koa: *Invertir en la infancia: romper el ciclo de las desventajas*. (2013/112/EB)

AURKIBIDEA

1. SARRERA	9
2. HEZKUNTZARIK GABE EZ DAGO EKITATERIK	13
3. HEZKUNTZA EKITATE INDIZEA	33
4. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK	55



I. SARRERA

Iluminando el futuro - Invertir en educación es luchar contra la pobreza infantil
(Etorkizuna argitzea: hezkuntzan inbertitzea umeen pobreziaren aurka borrokatzea da) izeneko estatu-txosten honek Euskadiko datu ofizialak biltzen ditu. Ez da Euskadiri buruzko txosten zehatza, eta ez ditu datuak eremuka edo eskualdeka banatzen. Aitzitik, datu kuantitatiboak aztertzen ditu, Euskadiko hezkuntzako politika publikoek kontuan hartu beharreko ildo nagusiak, indarguneak eta erronkak, nabarmentzeko. Hona hemen txostenaren edukia:

- **Hezkuntza-ekitateari buruzko indizeak (umeei buruzko politika publikoen egokitasunarekin lotua)** autonomia-erkidegoak eta hiri autonomoak 14 adierazleren arabera aztertu ondoren lortu duten batezbestekoa zehazten du. Adierazleei dagokienez, autonomia-erkidegoak eta hiri autonomoak bakoitzaren balioari jarraiki ordenatu dira, 1etik 19ra (1.a okerrena eta 19.a onena izanik). Indizea, horrenbestez, adierazle guztien baturaz lortutako batezbestekoa da. Autonomia-erkidegoak eta hiri autonomoak bost taldetan sailkatu dira, azterketa horretan oinarriturik.

Inbertsio guztien artean, hezkuntza-ekitateko politiketan egindakoa da sozialki errentagarriena, umeen orainean eta etorkizunean ez ezik, haien gizartean ere eragina duelako.

- **Autonomia eta hiri autonomoetako hezkuntza-politiken koherentziaren azterketa.** Analisi horrek politika publikoen ebaluazioa egitea ekartzen du, balizko hezkuntza-ekitate eza konpontzeko jarduera bereziak herrialde osorako ezarritako politikekin eta jarduera-ildoekin eta Europar Batasuneko gomendioekin eta jarraibideekin bat datozen aztertzeko.³ Ekitatea hezkuntza-prozesu osoan bermatu behar da. Horregatik, politika publikoek eta aurrekontuek koherenteak izan behar dute, eta printzipio hori aplikatu behar dute zerbitzuak, prozedurak eta edukiak nola jaso eta emaitzak nola lortu ezartzeko.

Euskadiko egoitzan, autonomia-erkidegoko umeei bideratutako politika publikoak hobetzeko ekintzak kudeatzen eta sustatzen dituzte. Gure esku-hartze ildoak umeen aurkako indarkeriari, umeen pobrezia-ri eta migrazioei buruzkoak dira.

Txosten honek biltzen dituen Euskadiri buruzko datuen arabera, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

- **Euskadikoa** (16,2) da komunitate eta hiri autonomo guztien arteko hezkuntza-ekitate maila altuena. Atzetik ditu Katalunia (12,2), Madril (13,6), Nafarroa (11,9) eta Aragoi (11,6), guztiak ere maila ertain-altuarekin. Azpiindizeei dagokienez, Euskadiko eskolaren arloko hezkuntza-ekitateari buruzkoak oso maila altua lortu du (17,6). Indize globala osatzeko beste azpiindizea eskolaren arlotik kanpoko hezkuntza-ekitateari buruzkoa da. Euskadiko ekitate-maila (14,9) oso altua da, eta Madrilekoa (14,7), ere bai.
- Ekitate-maila altuko komunitateen taldean, Euskadi baino ez litzateke egongo.
- Hezkuntzarekin lotutako politika publikoak koherenteak dira.

³ Etorkizuna argitzea txostenean zehaztasun handiz adierazten dute zein diren herrialdeko politikak eta jarduera-ildoak eta Europar Batasuneko zer gomendioekin eta jarraibiderekin neurtzen den haien koherentzia.

Edonola ere, txosten honetan, autonomia-erkidego eta hiri autonomo guztien artean balio onenak Euskadik lortu dituen arren, eta kasu batzuetan Europako Batzordearen Estrategia 2020 agiriko adierazleak betetzen dituen arren, zenbait alderdi Euskadiko hezkuntza-politikek etorkizunerako erronka gisa hartu behar dituzte. Arartekoak Legebiltzarrari aurkeztutako eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostenek ere jasotzen dituzte:⁴

- Euskadin eta Nafarroan pobrezia nabarmen handitu da, % 2 eta % 4,1, hurrenez hurren.
- 18 urtetik beherako herritarrei dagokienez, Euskadi eta Nafarroa pobrezia-maila baxuenak dituzten lekuen artean daude. Dena den, bi erkidegoetan, pobrezia-maila altuagoa da 18 urtetik beherakoen artean 18 urtetik gorakoen artean baino: % 19,3.
- 2008. urteaz geroztik, hezkuntzara bideratutako inbertsioa % 2,1 txikitu da.

4 Arartekoaren *Eusko Legebiltzarrarentzako 2013. urteko txostena* zenbait gomendio biltzen ditu: Ebazpena, 2013ko urriaren 28koa, hezkuntzako arduradunei familia-unitatea PFEZen arabera zehazten duten foru arauetara egokitu behar dutela gogorarazten diena. 0-2 urte artekoen eskolatzeko-etapan agertzen dira zailtasun handienak, leku publiko gutxi dagoelako, eta hala biltzen du 2012. urteko Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostenak. Hezkuntza-administrazioari egindako gomendioa, beka lortu arte umeen jangelaren tarifa ordaindu ezin dezaketen familiek lekua gal ez dezaten.



2. HEZKUNTZARIK GABE EZ DAGO EKITATERIK

Hezkuntza gizakien oinarrizko eskubidea da, baita gainerako giza eskubide guztiak erabili ahal izateko funtsezko faktorea ere. Hezkuntzak ongizate pertsonala eta etorkizunean egonkortasuna lortu ahal izateko tresnak ematen dizkie neska-mutilei eta nerabeei. Jakintzak eta gaitasunak ikasteko aukera egokia ezinbestekoa da umeen eskubideak bermatzeko. Hezkuntza-sistema zuzen batek oinarrizko ezagutza horiek emateaz gain, goi-mailako prestakuntza jaso ahal izateko aukera-berdintasuna bermatzen du.⁵ Arazoa ez da hezkuntza-sistema berdintasunezkoa izatea, onuradun guztientzat zuzena, inklusiboa eta kalitatezkoa baizik. Familien egoera sozioekonomikoak ezin du umeen hezkuntzaren bidez jakintzak eta gaitasunak ikasteko aukera kolokan jarri.

Hezkuntzarako eskubidea erabiltzeak potentzial handiena lortzeko beharrezko gaitasunak ematen dizkie banakoei, eta hala, bizi-hautuak askatasunez egin ahal izatekoak eta bere nahien eta asmoen arabera garatzekoak.

5 Goi-mailako hezkuntza estrategikoa da, eta gizartearen beharren eta ikaskuntzaren arteko lotura ezartzen du, baina ez da ez modu bakarra, ez onena, noski.

Hezkuntza-ekitatea pertsona guztiei aukera berberak ematen dizkien sistema bermatzea da. Sistema zuzena, inklusiboa eta kalitatezkoa, hezkuntzarako eskubidea bermatzen duena.

2.1. HEZKUNTZA-EKITATEA POBREZIAREN AURKAKO ESTRATEGIA MODUAN

Hezkuntza-sistemen erronketako bat da alde handienak dituzten gizarteetan hezkuntzak horiek ez nabarmentzea, eta aldeok arintzeko tresna izatea.

Espanian, hezkuntzan unibertsaltasun-printzipioa bermatzen duen eskolatzeta ia % 100koa da.

Dena den, errepikatzeko-, uzte-, porrot- eta absentismo-tasak eta Espainiako gazteen langabezia-tasa Europako batezbestekoen gainetik daude, eta kezagarriak dira. Ikaskuntzan porrot egiteak umei heldutan kalte egingo die, bai lan-arloan, bai pertsonalki errealizatzeko beharrezkoak diren bestelako alderdi batzuetan ere.⁶

⁶ Haurren Eskubideei buruzko Batzordearen I. Ohar Orokorraren (CRC/GC/2001/1), hezkuntzaren helburuei buruzkoaren, 2001ko apirilaren 17koaren 8. eta 12. lerroak den arabera, «hezkuntzaren helburu izan behar da ume guztiek bizitza aktiborako funtsezko prestakuntza dutela eta ume guztiek eskolatzeta amaitzen dutela bermatzea, bidean ziurrenik aurkituko dituen oztopoak gainditzeko oinarritzko elementuen faltarik gabe».

Espanian, hiru eskola umetik batek (% 35) hamabost urte bete aurretik ikasturte bat gutxienez errepikatu du.⁷

Bigarren hezkuntzako ikasleen % 30 inguruk ez du DBHko ziurtagiria lortzen; Euskadin, % 14k.

Ikasketak garaiz aurretik uzten dutenak % 23,6 dira (Europako batezbestekoaren –% 12- bikoitza).⁸ Euskadiko tasa % 9,9koa da, eta Europak 2020. urterako jarritako % 10 helburua betetzen du.

25 urtetik beherako bi gaztetatik batek (% 51,8) ez du lan-jarduerarik egiten.⁹ Euskadin, gazteen langabezia % 43,2koa da.

15 eta 24 urte arteko bost gaztetatik batek (% 23,5) ez du ikasten, ez lanik egiten (portzentajea Europako batezbestekoa –% 15,9- baino askoz handiagoa da).¹⁰ Euskadin, % 13,1koa da.

7 Política Educativa en Perspectiva (Education Policy Outlook), ELGE. 2014

8 ELGEren Hezkuntza eta Gaitasunen Zuzendaritzaren Política Educativa en Perspectiva (Education Policy Outlook) txostenak herrialde kide guztietako hezkuntza-politikak eta erreformak aztertzen eta konparatzen ditu. Bi urtean behin argitaratzen dute. Hemen bildu dugun informazioa 2014ko lehen liburukitik atera dugu.

9 2014ko laugarren hiruhileko EPAren datuen arabera, 25 urtetik beherakoen langabezia-tasa % 51,8koa da.

10 Eurostaten 2013ko datua, 2015eko urtarrilaren 7an eguneratua.

2.2. GIZARTEAK EZIN DU AURRERA EGIN, POBREZIA HANDITZEN BADA

Hezkuntza-sistemen erronka da zerbitzua zuzena eta kalitatezkoa izatea eta hartzailen behar bereziak betetzea, eta horren banaketa berdintasunezkoa izatea.

(Néstor López, herrialdeko eta nazioarteko hainbat organismo-tako aholkularia)

Krisi ekonomikoak Espainian aurreko hamarkadetan izandako mugikortasun sozialaren prozesua amaitu zuen. 2008tik, pobrezia eta desparekotasuna handitu dira, eta gizarteko kideei bere egoera sozioekonomikoa aldatzeko eta gizarte-posizioa hobetzeko aukerak gutxitu dizkie. Orain familiek ez dute krisiaren aurretik seme-alaben etorkizunean inbertitzeko eta desabantaila-egoera hobetzeko zuten gaitasun bera. Krisiaren inpaktua eta pobrezia-aren hazkundera bereziki larriak dira 18 urtetik beherakoen artean. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean jasotako eskubideetan nabaritu da eragina, eta batzuetan eskubide horiek ez dira bete.

2013an, 12 eta 17 urte arteko hamar gaztetik lau pobrezia edo bazterkeria jasateko arriskuan zeuden.

I. taula
**Pobrezia edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duen biztanleria-
 portzentajeen bilakaera, adin-taldean arabera, Espainian eta Europar
 Batasunean.
 2005etik 2013ra.¹¹**

ESPAINA									
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Guztira	24,3	24,0	23,3	24,5	24,7	26,1	26,7	27,2	27,3
6 urtetik beherakoak	25,0	25,7	24,1	27,5	29,6	28,6	27,4	27,4	28,2
6 urtetik 11ra bitartekoak	29,0	29,8	29,6	30,5	32,0	34,8	33,6	33,4	32,7
12 urtetik 17ra bitartekoak	32,8	33,4	32,5	34,2	34,7	37,3	36,2	37,1	37,6
18 urtekoak edo hortik gorakoak	23,3	22,9	22,2	23,2	23,1	24,5	25,5	26,1	26,1
EB									
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Guztira	25,7	25,3	24,4	23,7	23,2	23,7	24,3	24,7	24,5
6 urtetik beherakoak	26,6	25,7	24,5	24,6	24,6	25,8	25,4	25,9	25,7
6 urtetik 11ra bitartekoak	27,6	27,7	26,0	26,3	26,0	27,6	27,2	27,9	27,1
12 urtetik 17ra bitartekoak	29,6	28,8	28,7	28,6	28,2	29,0	29,3	30,0	30,2
18 urtekoak edo hortik gorakoak	25,1	24,8	24,0	23,1	22,5	22,8	23,6	24,0	23,8

2.2.1. Pobrezia edo gizarte-bazterkeria arriskua lurraldeka

AROPÉ¹² adierazlearen arabera, pobrezia-tasa oso bestelakoa da eskualde batzuetan eta besteetan, eta aldea % 24tik gorakoa ere bada. Azken bost urteetan, pobrezia Ceutan hazi da gehien (% 9,7¹³), eta pobrezia edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden herritarren kopuru handiena han dago. Gaztela-Mantxan egoera antzekoa da: pobrezia-tasaren bigarren hazkunde handiena izan du azken bost urteetan (% 8,1) eta pobrezia edo gizarte-bazterkeria arriskuan dauden herritar gehien dituen hirugarren autonomia-erkidegoa da.

¹¹ Eurostaten 2013ko datuak, 2015eko otsailaren 16an eguneratuak.

¹² Arope (pobrezia edo bazterkeria arriskuan, ingelesez) adierazlea 2020 Estrategiaren helburu politikoen betetze-maila neurtzeko balio du. Erroketako bat estatu kideetan pobrezia eta gizarte-bazterkeria arriskuan daudenen kopurua gutxienez 20 milioi pertsona txikiagoa izatea da. Adierazle berri horrek hiru alderdi ditu: pobrezia erlatiboaren atalasetik beherako herritarrak, gabezia material larria eta etxeko lan-intentsitate txikiko herritarrak.

¹³ Portzentaje honek zifren arteko aldea adierazten du.


Komunitate autonomo ezberdinetako umeen egoera oso bestelakoa da. Ume-pobrezia mailaren aldea oso handia da batetik bestera.

Pobrezia-maila handienak dituzten autonomia-erkidegoen artean, 2013an, Andaluzia bigarrena zen; Extremadura, laugarrena; Murtziako eskualdea, seigarrenean eta Valentziako Komunitatea, zazpigarrenean. Euskadi pobrezia gutxien duten autonomien artean dago (% 14,5), Nafarroarekin batera (% 16,8). Hala ere, azken urteetan, Euskadin eta Nafarroan pobrezia nabarmen handitu da, % 2 eta % 4,1, hurrenez hurren.

18 urtetik beherako herritarrei dagokienez, Euskadi eta Nafarroa pobrezia-maila baxuenak dituzten lekuen artean daude. Dena den, bi erkidegoetan, pobrezia-maila altuagoa da 18 urtetik beherakoen artean 18 urtetik gorakoen artean baino: % 19,3. Baina herrialdeko batezbestekoa (% 32,6) baino nabarmen txikiagoa da. Datu okerrenak dituzten eskualdetatik oso urruti dago Euskadi: Ceutan, umeen % 64 pobrezia edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daude; Andaluzian, 18 urtetik beherakoen % 45,3; Gaztela-Mantxan, % 43,4; Murtzian, % 43; Extremaduran, % 40,8 eta Kanarrietan, % 39,4.

Pobrezia-aldea handitzen bada, hezkuntza-aldea ere handituko da, eta maila sozioekonomiko txikiagoa duten familietako umeek –edo ezberdintasun sozial handiagoa duten lekuetan bizi direnek– eskolara maiztasun txikiagoarekin joateko edo prekarietate-baldintzetan joateko probabilitate handiagoa dute.

I. grafikoa
Pobrezia edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden 0 eta 17 urte artekoen portzentajea (Europa 2020 Estrategia), komunitate eta hiri autonomoen arabera. 2013. urtea.¹⁴



Iturria: guk geuk egina INEren bizi-baldintzei buruzko 2013ko inkestaren mikrodatuak erabiliz.

Pobrezia- edo bazterkeria-arriskua egoeraren ondorio negatiboek umeen eskolako errendimenduari eta ikasketak garaiz aurretik uzteko aukerei ez ezik, beren garapen pertsonalari eta helduaroko asmoei ere eragiten die. Ikerketa zientifiko guztiek –eta Save the Children erakundearen eguneroko esperientziak– ziurtatzen dute hezkuntzak pobrezia eta gizarte-bazterkeria prebenitzeko balio kalkulazina duela. Hain zuzen ere, umeen heziketan eta prestakuntzan inbertitu behar da, umeen pobrezia aurre egiteko.

¹⁴ Inkestan, zenbait autonomia-erkidegotako lagin txikiak erabili dituztenez (Melillako Hiru Autonomorako, Ceutako Hiri Autonomorako, Kantabriarako, Balear Uharteetarako, Errioxarako, Nafarroako Foru Komunitaterako, Murtziako Eskualderako eta Asturiasko Printzerriarako, kasu) emaitzak kontuz interpretatu behar dira.

Hezkuntza-pobreziak umeen ikaskuntza-prozesua oztopatzen du eta haien helduaroa baldintzatuko du.

2.3. HEZKUNTZA-POBREZIA

“Nire alabak bere adineko neskatoen aukera berberak edukitzea nahi nuke, eta ikasi nahi badu, nahi duena ikasteko aukera izan dezala. Hilero apurtxo bat aurrezten dugu liburuen eta materialen gastuei aurre egiteko. Oso zaila da dena erosi ahal izatea. Aurten oso gogorra izan da”

Hezkuntza –ikaskuntza sortzeko komunikazio-jardueren erabilera barne¹⁵– gizarteek belaunaldi batetik bestera informazioa, ulermena, jakintzak, jokabideak, balioak, gaitasuna eta trebeziak transmititzeko erabiltzen duten prozesua da, eta hezkuntza-pobrezia, edozer adineko umeei gaitasuna, abileziak, talentuak eta asmoak garatzea galarazten zaienean gertatzen den ikasteko eta esperimintatzeko aukera eza.¹⁶ Ume bati ikastea galarazten bazaio, haren etorkizuna kaltetuko da, lanari, familiari, ekonomiari eta harremanei dagokienez.

Hezkuntza-pobreziak umeei gaitasunak, abileziak, talentuak eta asmoak garatzea mugatzen du, hezkuntza-sistemak ez diela jasaten dituzten desberdintasun-egoerak konpentsatzeko baldintzak ematen. Ildo horretatik, ikasketei eta ikastetxetik kanpoko bizitzari buruzko zenbait adierazleren emaitzak kezagarriak dira:

2.3.1. Ikasketen arlokoak

- **Ikasketak garaiz aurretik uzten dutenen tasa:**¹⁷ 18 eta 24 urte arteko Espainiako gazteen % 23,6k garaiz aurretik utzi dituzte ikasketak. Portzentaje horrek Europar Batasuneko batezbestekoa (% 12) bikoizten du eta, herrialde guztien artean, zifrarik okerrena du. Beraz, Espainia 2020. urterako ezarritako % 10 helburua lortzetik oso urrun dago. Euskadin, ordea, ikasketak garaiz aurretik uzten dutenen tasa % 9,9koa da.

¹⁵ Unescok definizio hori erabiltzen du Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuan (ISCED ingelesezko sigletan).

¹⁶ Aladdin's Lamp. Save the Children's index to measure educational poverty and illuminate the future of children in Italy txosteneko definizioa.

¹⁷ Eurostat, 2013.

- Espainiako ikasleen errendimendua ELGEko eta EBko herrialdeen batezbestekoa baino txikiagoa da, aztertu diren hiru arloetan¹⁸ Matematiketan, Espainiako ikasleen emaitzak ELGEko batezbestekoa baino 10 puntu txikiagoa da; irakurketakoa, zortzi puntu txikiagoa; eta zientzietakoa, bost puntu txikiagoa.¹⁹ Euskadiren kasuan, ikasleen errendimendua ELGEko batezbestekoa baino handiagoa da hiru arloetan (505, 498 eta 506 puntu, hurrenez hurren).
- Justifikatu gabeko eskola-absentismoak (derrigorrezko hezkuntzan) eskolatuta dauden eta asistentzia irregularra duten ikasleei egiten die erreferentzia. Espainiako ikasleen % 28k aitortu du azterketa egin aurreko bi asteetan egun batean edo gehiagotan ez direla ikastetxera joan arrazoi justifikaturik gabe. ELGEen zifra hori nabarmen txikiagoa da (% 15). Ohikoa da ikasleek ikasketak garaiz aurretik utzi baino lehen eskolara ez joatea. Euskadin, absentismo tasa % 13,9koa da.
- Ikasturteak errepikatzea ere ikasketak garaiz aurretik uztearen iragarle eta kausatzat har daiteke. ELGEko herrialdetan, zailtasun sozioekonomikoak dituzten bost ikasletatik batek ikasturte bat gutxienez errepikatu zuen lehen hezkuntzatik aurrera (egoera sozioekonomiko oneko ikasleen artean, % 7k). Espainiari dagokionez, zailtasun sozioekonomikoak dituzten bi ikasletatik batek baino gehiagok errepikatu dute ikasturteren bat.
- Egokitasun-tasa eskolatzean ikasturterik errepikatu gabe aurrera egin duten ikasleei dagokie. 2012-2013 ikasturtean, Espainiako ikasleen % 62,5 soilik iritsi zen DBHko 4. mailara 15 urterekin (Euskadin, berriz, % 72,8). DBHko 4. maila baino lehenago errepikatu dutenen artean (ikasleen % 37,5), % 10,6k Lehen Hezkuntzako ikasturteren bat errepikatu dute eta % 16,6 DBHn errepikatu du lehen aldiz (Euskadin, ikasleen % 27,2 dira DBHko 4. mailara iritsi aurretik errepikatu dutenak: % 9,1ek Lehen Hezkuntzako ikasturteren bat errepikatu du eta % 12,8k DBHn errepikatu du lehen aldiz). Mutiletatik, % 57,9 soilik iritsi zen DBHko 4. mailara ikasturterik errepikatu gabe. Nesken kasuan, ordea, zifra % 67,3koa da (Euskadin, % 68,2 eta % 77,6 izan ziren, hurrenez hurren).

18 2012ko PISA txostenaren datuak.

19 Matematiketan 484 puntu (494 puntuko batezbestekoa), irakurketan 488 puntu (496 puntuko batezbestekoa) eta zientzietan 496 puntu (501 puntuko batezbestekoa).

Umeen hezkuntzari eragiten dioten faktore guztiak ez dira ikasgelan gertatzen. Kultura, kirola eta eskolaz kanpoko jarduerak funtsezkoak dira eskola-garapena hobetzeko eta indartzeko.

2.3.2. Ikastetxetik kanpokoak

Ikasketen arloko desabantaila sozialarekin eta errendimendu akademikoarekin lotutako alderdiek ez ezik, beste batzuek ere eragiten dute hezkuntza-pobreziako prozesuak. Eta horien datuak ez dira oso positiboak:

- 10 eta 14 urte arteko neska-mutilen % 32k ez zuten museorik bisitatu (mutilen % 32,9k eta nesken % 31);
- % 52k ez zuen erakusketarik ikusi (mutilen % 51,2 eta nesken % 52,9);
- Erdiak baino zertxobait gehiagoak ez zuen antzezlanik ikusi (mutilen % 52,1 eta nesken % 46,8k).
- Halako kultura-jarduera batez gozatu zutenetatik, gehienek ikastetxearen edo institutuaren bitartez egin zuten, ez familiakoekin, lagunekin edo beren kabuz.²⁰
- Eskola-umeen % 35 inguru sedentarioa da.²¹ (astean bi ordu baino gutxiago ematen ditu jarduera fisikoa edo kirola egiten) eta % 11 nahiko sedentarioa da. Datu hori bereziki kezagarria da nesken kasuan, sedentarismo-tasa % 46koa delako (mutilena % 24koa da).
- 10 eta 14 urte arteko Espainiako umeetatik % 82k bideojokoak erabiltzen dituzte sarri. Kasu honetan, mutilen portzentajea neskena baino nabarmen handiagoa da (% 88,2 eta % 77, hurrenez hurren).²²

20 II.I. eranskina. Elkarrizketatuarekin bizi diren 10 eta 14 urte arteko adingabeek kultura-jardueretan duten partaidetzari buruzko adierazleak, sexuaren arabera. 2010-2001 aldiko ohitura eta praktika kulturaleri buruzko inkesta (MECD, 2010-2011).

21 Kirolen Goi Kontseiluaren Los hábitos deportivos de la población escolar en España azterlanaren arabera. Lehen hezkuntzako 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko eta LH erdi mailako 2. mailara arteko ikasleak aztertu ditu.

22 2010-2001 aldiko ohitura eta praktika kulturaleri buruzko inkestaren datuak (MECD). Datu horiek herrialde osokoak dira eta ezin dira autonomia-erkidegoen arabera eman.

2.4. POBREZIA GAIXOTASUNA EZ BADA, ZERGATIK TRANSMITITZEN DA?

Espainiako gazteen hezkuntza-mailak beren gurasoen belaunaldiko pertsonena baino altuagoak dira:²³ Espainian goi-mailako hezkuntzako 20 eta 34 urteko ikasleen ia heren baten gurasoen ikasketa-maila bigarren hezkuntzako bigarren etapatik beherakoa da (ELGEn % 9).

Pobrezia-egoerak hazteak ez du umeen bizi-aukeretan eraginik izan behar.



Hala ere, familien faktore kultural eta sozioekonomikoek zuzeneko eragina dute umeen eskolako esperientziaren aprobetxamendu egokian. Hala, familien baldintza sozioekonomikoak eta gurasoen trebakuntza-maila dira pobrezia belaunalditik belaunaldira transmititzeko faktore nagusiak. Bigarren mailako hezkuntza amaitu ez zuten gurasoen seme-alabek dute pobrezia-arrisku handiena. Halako familietako umeen erdia baino gehiagok dute pobrezia edo gizarte-bazterkeria arazoa (% 56,7).²⁴

23 Education at a Glance 2014: OECD Indicators azterlanaren arabera.

24 Eurostat-en Income and Living Conditions 2013 txostenetik aterata.

Umeen pobrezia-aren eta gurasoen ikasketa-mailaren arteko loturaren arrazoia diru-sarreretan dago. Oro har, halako pertsonen lanpostuek, lanik izanez gero, soldata txikiak izaten dituzte. Horregatik, ezin diete ikasketei lotutako askotariko kostuei aurre egin,²⁵ hala nola testu-liburuei, eskolako materialari, garraioari, bisitaldi kulturaleri eta txangoei, ikastetxeko ospakizunei, jangelako gastuei eta abarri lotutakoak. Egoera horri aurre egitea ahalbidetzen duen politikarik sortzen ez bada, egoera sozioekonomiko okerrean dauden familiako umeen ikasteko aukerak baldintzatzen dira.

3. taula
Gurasoen ikasketa-mailaren arabera, pobrezia edo gizarte-bazterkeria arriskuan dauden adingabeen portzentajea (Europa 2020 estrategia) Espainian eta Europan, adin-taldetan sailkatuta.
2013. urtea.²⁶

 ESPAINIA			
	6 urtetik beherakoak	6 urtetik 11ra bitartekoak	12 urtetik 17ra bitartekoak
Gurasoek oinarrizko ikasketak egin dituzte	59,2	58,3	53,5
Gurasoek maila ertaineko ikasketak egin dituzte	29,6	37,9	36,2
Gurasoek goi mailako ikasketak egin dituzte	11,5	14,0	19,5
 EB			
	6 urtetik beherakoak	6 urtetik 11ra bitartekoak	12 urtetik 17ra bitartekoak
Gurasoek oinarrizko ikasketak egin dituzte	65,2	62,6	60,1
Gurasoek maila ertaineko ikasketak egin dituzte	32,7	31,7	32,5
Gurasoek goi mailako ikasketak egin dituzte	10,2	10,4	11,5

Guk geuk egina INEren eta Eurostaten bizi-baldintzei buruzko 2013ko inkestaren mikrodatuak erabiliz.

25 Save the Children erakundeak 2014an argitaratutako 2.826.549 razones. La protección de la infancia frente a la pobreza: un derecho, una obligación y una inversión txostenean jasotako arrazoi kezkarrien artean, hezkuntzaren ezkutuko prezioa adierazi zuen (74. eta 75. orrialdeak).

26 Eurostaten 2013ko datuak, 2015eko otsailaren 16an eguneratuak.

Politika publikoek eta ikastetxeek gizarte-desabantailan dauden familien egoera hartu behar dute kontuan, seme-alabek eskolako bizitzan parte har dezaten.

2.4.1. Familiaren eta ikastetxearen arteko harremana

Umeen egunerokoan gertatzen den hezkuntza-desabantailaren iturriari aurre egiteko funtsezko eragileetako bat ikastetxeak eta hainbat erakunderen programa hezigarriak izaten dira, Save the Childrenek kasu. Ikastetxeen eta familien arteko harremana ezinbestekoa da, eta neska-mutilei egiten die mesederik handiena. Hala ziurtatu du Save the Children erakundeak Euskadin eskola-absentismoa eta ikasketak garaiz aurretik uztea gutxitzeko eta ikasketa-errendimendua hobetzeko abiarazi dituen umeen pobreziaren aurkako programekin. Familien eta ikastetxeen arteko harremanean, komunikazioari eragiten dioten faktore ugari daude. Horietako batzuk familiei eragiten dieten desabantaila edo bazterkeria egoerek ere eragiten dituzte.

“Batzuk gosalduta gabe ere etortzen dira. Lehenago nekatzen direla ikusi dugu. Sabeleko edo buruko mina izaten dute eta ikasgelan ezin dute arreta jarri. Halako arazoak ikastetxe askotan gertatzen dira”

Politika publikoek eta ikastetxeetako jarduerak familien egoera okerrenak ere hartu behar dituzte kontuan, prestakuntza-maila txikia eta/edo baliabide material urriak dituzten familiek jasaten duten sorgin-gurpila apurtzeko; horren eraginez ezin baitiete umeei ikasketetan gehiegi lagundu eta ezin izaten duten haiekin jardueretan parte hartu. Azken zortzi urteetako egoerak arrasto sakona utzi du familietan, eta oso zaila izango zaie lehengo baldintzetara itzultzea. Ondorioz, ikastetxe askotan ez dakite nola lagundu eta ez dagokien funtzioak betetzen ari dira.

- hezkuntza arloko gastu publikoa
 - + gabeziak dituzten neska-mutilak
 - bekak eta laguntzak
 - + familien hezkuntza arloko batez besteko gastua
-
- + **pobrezia edo bazterkeria arriskuan dauden neska-mutilak**

2.5. ZERBAITEK EZ DU FUNTZIONATZEN POBREZIA HANDITZEAN INBERTSIOA GUTXITZEN BADA

Hezkuntzako **gastu publikoa** –barne produktu gordinaren (BPG) portzentajea– 6.000 milioi euro inguru txikitu da.²⁷ Horrenbestez, Espainiaren inbertsioa ELGEko eta Europar Batasuneko herrialdekoen batezbestekoa baino txikiagoa da.²⁸ Hezkuntzako gastu publikoari eta guztizko gastu publikoari erreparatuz gero, Espainia ELGEko eta Europar Batasuneko zifretatik behera dago.²⁹ Aitzitik, hezkuntza publikoan, ikasle bakoitzeko gastua ELGEkoa eta Europar Batasuneko batezbestekoa baino handiago da (horren arrazoietakoa bat da 5 eta 19 urte arteko ume eta gazteen proportzioa txikiagoa dela³⁰). Dena den, aldeko faktore hori nabarmen txikitu da 2008 eta 2013 artean (% 36 baino gehiago).³¹ 2009-2010 eta 2012-2013 ikasturteen artean ikasketetako laguntzen eta beken onuradunak³² 500.000 gutxiago izan dira. Murrizketa hori bereziki handia izan da³³ derrigorrezko hezkuntza zikloetan, haur hezkuntzan eta hezkuntza berezian, liburuak eta material didaktikoa erosteko laguntzak txikitu dituztelako³⁴ (% 35,5 gutxiago).

27 Puntu erdia baino gehiago 2009 eta 2014 artean. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (MECD). Datos y cifras Curso escolar 2014-2015.

28 Hezkuntzako gastu publikoa 2013an: Espainian, % 4,5; Europar Batasunean, % 5,3 eta ELGEn, % 5,6.

29 Datu hau ez da EB28ri buruzkoa, EB2li buruzkoa baizik, dokumentu honetan Europar Batasuna aipatzen den beste batzuetan ez bezala. Espainian 2014an sortutako Panorama de la Educación. Indicadores de la OCDE dokumentutik hartu da.

30 Urtero argitaratzen duten txosten hori baimendutako iturri bat da, eta mundu osoko hezkuntzaren egoerari buruzko informazio zehatza eta egokia ematen du. Education at a Glance 2014: OECD Indicators, Hezkuntza eta Gaitasunen Zuzendaritza, ELGE.


31 Espainiako hezkuntzari buruzko Europar Batasunaren Education and Training Monitor 2014. Spain txostena, Europako Batzordea.

32 Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratutako azken estatistikak. 2015eko urtarrilaren 21ean kontsultatuak.

33 2013-2014 ikasturterako behin behineko zifraren arabera, murrizketak 1.075.645 onuradunei eragingo die.

34 Ikasketak-beke eta laguntzeko buruzko estatistika. 2013-2014 ikasturtea. Laburpen oharra. Emaitza nagusien azterketa, MECD.

4. grafikoa
Familia bakoitzak hezkuntzan egiten duen batez besteko gastua³⁵ (eurotan),
autonomia-erkidegoen arabera.
2013. urtea.



Iturria: Geuk egina, 2013ko Familien Aurrekontuei buruzko Inkestan (INE) oinarrituta.

Bestalde, familia bakoitzak hezkuntzara bideratzen duen batez besteko gastua nabarmen handitu da 2006tik 2013ra, hain zuzen ere, % 30,3. Gastu horri dagokionez, 2006tik % 25etik gorako aldakuntza izan duten autonomia-erkidegoen artean dago Euskadi. Familiek hezkuntzan gastu handiena duten autonomia-erkidegoetako bat ere bada: Madril (639€), Nafarroa (534€), **Euskadi (522€)** eta Katalunia (505€). Horietako zifrak Espainiako batezbestekotik (361€) nahiko urrun daude.

35 Barne hartzen ditu hezkuntza-administrazioak edo arlo horretako beste erakunde eskudun batek (publikoa zein pribatua) ematen dituen hezkuntza-zerbitzuak. Ez dira kontuan hartuko edozer eskola-materialaren (liburuak, eskuliburuak, paperezko gaiak...), hezkuntzaren zerbitzu osagarrien (eskola-aseguruak, garraioa, unibertsitate-egoitzetako zerbitzuak, ikastetxeak, etab.), eskolako edo unibertsitateko jangelako eta uniformeen gastuak.

Orain, familiek egiten dute gastu handiena hezkuntzan, inbertsio publikoa txikitzen ari baita.

Herrialdeko autonomia-erkidego guztietan handitu da hezkuntzako gastua eta guztietan txikitu da familien erosketa-ahalmena. Eurostaten datuen arabera, Espainian, biztanleko errenta gutxitu egin da azken urteetan. 2013. urtean, 2008. urtekoa baino % 8 txikiagoa zen eta Euroguneko errenta baino % 13 txikiagoa. Espainiako eta autonomia-erkidegotako familietan, urteko batez besteko errenta garbiaren gutxitzea orokorra eta etengabea izan da 2009tik. Euskadin, familien errenta % 8,9 txikitu da eta Espainian, % 10etik gora. Edonola ere, Europar Batasun osoko biztanleko batez besteko errenta baino askoz txikiagoa da.³⁶

6. grafikoa
Hezkuntza-politiketako inbertsioaren aldakuntza-tasaren eta familiek hezkuntzan egiten duten batez besteko gastuaren aldakuntza-tasaren arteko konparaketa. 2013. urtea



Iturria: Geuk egina, Tomillo Ekonomia Ikasketen Zentroa/UNICEFen estimazioetan eta 2013ko Familien Aurrekontuei buruzko Inkestan (INE) oinarrituta.

36 Europar Batasunekoaren % 95.

Bestalde, 2007. eta 2013. urteen artean, hezkuntza-politiketako inbertsioa nabarmen txikitu da komunitate eta hiri autonomo guztietan, administrazio eskuduna edozer dela. Estatuko Administrazio Nagusiaren inbertsioa asko txikitu da (% 55,47). Hala ere, murrizketa handienak administrazio horrek autonomia-erkidegoei egiten dizkien transferentzietan izan dira (-% 95,44). Gainera, autonomia-erkidegoen inbertsioa ere % 10,98 txikitu da. Guztira, epe horretan, Estatuko Administrazio Nagusiak eta autonomia-erkidegoek hezkuntza-politketan egiten duten inbertsioa % 10,94 gutxitu da. Nafarroan izan ezik³⁷, % 5,75eko hazkundera izan baitu, autonomia-erkidego guztietan txikitu da inbertsioa 2007 eta 2013 artean. Euskadin, murrizketa % 2,9koa izan da.

Azterlan eta txosten ugaritan ikus daitekeenez, komunitate eta hiri autonomo gehienetan, pobrezia eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten herritarren kopurua handitu egin da. Pobrezia-atalasean dauden familiek gutxienez diru-sarreraren % 17,43 bideratzen dute seme-alaben hezkuntzara. Oraingoz, horrek ez du eraginik izan heziketarako adierazle oinarrikoenetan, hezkuntzako inbertsioaren murrizketak AROPE adierazlearen bilakaera kaltetzeko arriskua dago, batez ere, umeei.

37 UNICEF, La infancia en los presupuestos: nota metodológica. Umeentzako hezkuntzarekin lotutako informazioaren gabeziak (3.1 puntua, 14. orrialdea): Umeei zuzendutako hezkuntza-programen gastua identifikatu ahal izateko, ezinbestekoa da gastuaren aurrekontuetako informazioa hezkuntza-etapen arabera bereizita egotea. Ahal izanez gero, hurrengo etapa hauek identifikatu beharko lirateke: haur hezkuntza, lehen hezkuntza, DBH, batxilergoa, lanbide-heziketa edo heziketa-zikloak, osabidezkoa, gizarte-bermea edo hasierako lanbide-prestakuntzako programak, heziketa berezia, araubide bereziko irakaskuntzak (artistikoak eta hizkuntzak) unibertsitatea eta helduentzako heziketa. Autonomia-erkidego gehienetan etapa horiek identifika daitezke (nahiz eta ezberdin bereizi), hurrengo hauetan izan ezik: Kantabrian, Katalunian, Nafarroako Foru Komunitatean eta Balear Uharteetan izan ezik. Hezkuntza-etapetan egiten duten gastua ez dute behar bezala eta argitasunez bereizten.

www.unicef.es/sites/www.unicef.es/files/nota_metodologica_04_web.pdf

2.6. SEME-ALABAK HEZTEAREN PREZIOARI AURRE EGITEA

Familiak seme-alabak eskolatzearen gastuak –testu-liburuenak, eskolako materialarenak eta jangelarena, kasu- ordaintzeko behar izan dituzten laguntzetako asko zenbait hezkuntza-komunitateren kideen ekimen pertsonalaren bidez finantzatu dira. Hala ere, laguntza horiek herri-administrazioek eman behar dituzte. Ezin dute umeek ikasteko beharrezko guztiak ez dituztelako gaizki pasatzen dutela ikusten dutenen karitate- edo elkartasun-adierazpena izan. Prestazio horiek funtsezkoak dira, baina bekei eta laguntzei bideratutako aurrekontu sailak txikitzen edo deuseztatzen badituzte, umeek hezkuntza-desabantailan ez egoteko beharrezko ondasunen eta zerbitzuen kostua ordaindu behar dute familiak, eta horretarako gai ez badira, besteen karitatea edo elkartasuna onartzea da aukera bakarra.

Horren adibide on bat testu-liburuen gastuak dira. Horren inguruko kezka ugari sortu ziren, eta Herritarren defendatzaileak 2013ko urrian argitaratutako Gratuidad de los libros de texto; programas, ayudas, préstamos y reutilización³⁸ txostenarekin erantzun zien. Horren helburu nagusia hautemandako arazoak aztertzea eta hainbat gomendio proposatzea izan zen.

³⁸ Herritarren defendatzailea (2013): Estudio sobre gratuidad de los libros de texto: programas, ayudas, préstamos y reutilización. Madrid: Herritarren defendatzailea.

Testu-liburuak erosteko diru-laguntzak, estatuarenak eta autonomia-erkidegoenak, nabarmen txikitu dira 2008 eta 2013 artean. Nabarmentzekoa da autonomia-erkidegoen ekarpena estatuarena baino handiagoa izan dela beti. Gainera, azken hori laurden batera txikitu dute gutxi gorabehera 2008-2009 ikasturtetik 2012-2013 ikasturtera: ia 80 milioi eurokoa izatetik –zifra gutxi gorabehera horrelakoa zen aurreko ikasturteetan ere- 20 milioi eurokoa baino txikiagoa izatera. Hala, 2008-2009 ikasturtean estatuak eta autonomia-erkidegoek guztira 303 milioi euro bideratu zituzten testu-liburuen doakotasuna ordaintzeko eta 2012-2013 ikasturtean, 166 milioi euro. Horrenbestez, hiru ikasturtetan, zifra hori 137 milioi eurotan txikitu da. Portzentajetan adierazita, murrizketa % 45,2koa izan da: estatuak % 75 txikitu ditu ekarpenak eta autonomia-erkidegoek, % 35. Adierazitako epea krisiaren hasierarekin dator bat, eta familiei ere orduan sortu zitzaizkien seme-alabak eskolatzearen ondorioz sortutako gastuak, besteak beste, ordaintzeko zailtasun handienak.

Hezkuntzarako eskubideak eta hezkuntza-pobreziari aurre egiteko jarduerak ezin dute elkartasun-adierazpenen mende egon. Politika publikoek arduratu behar dute horiez.

4. taula.

Testu-liburuetarako diru-laguntzen bidezko guztizko finantzazioaren bilakaera. 2008-2009 ikasturtetik 2012-2013 ikasturtera.

TESTU-LIBURUETARAKO DIRU-LAGUNTZEN FINANTZAZIO OSOA					
Ikasturtea	Autonomia-erkidegoak (€)	Estatua (€)	Guztira (€)	Urtetik urterako aldakuntza-tasa	08-09 ikasturtearekiko aldakuntza-tasa
2008-2009	225.459.813	78.047.264	303.507.077	—	—
2009-2010	187.324.383	79.037.648	266.362.031	-12,2%	-12,2%
2010-2011	144.619.106	80.860.956	225.480.062	-15,3%	-25,7%
2011-2012	170.339.527	79.700.569	250.040.096	10,9%	-17,6%
2012-2013	146.702.943	19.564.431	166.267.374	-33,5%	-45,2%
2008-2013	874.445.772	337.210.868	1.211.656.640		
	72,20%	27,80%	100,00%		

Iturria: Herriaren Defendatzailea (2013).



3. HEZKUNTZA EKITATE INDIZEA

Hezkuntza-ekitateko politikek hezkuntzaren bidez transmititzen diren jakintzak eta gaitasunak banako guztiei aukera-berdintasunez helarazteko eta haien potentzialaren garapenik handiena bermatzeko baliabideak eta baldintzak eman beharko lituzkete. Ekitate-politiketan inbertituz gero, umeen pobrezia txikitzeko, familien diru-sarrerak handitzeaz gain (funtsezkoa da), pobrezia eta gizarte-desabantaila eragiten duten beste arlo batzuetan, hezkuntzan kasu, ere inbertitzen da.³⁹

Hezkuntza-ekitateko indize honek hezkuntzako politika publikoek gizarte-desabantaila, pobrezia eta bazterkeria desagerrarazteko duten boterea nabarmentzen du, Europako Batzordeak adierazi duen bezala. Hezkuntza denon eskubidea da, baina politika publikoek ez dituzte beti ekitatea lortzeko beharrezkoak diren egokitasuna eta koherentzia lortzen.

Hezkuntza-ekitatearen indizearen bidez, erkidego bakoitzaren batez besteko balioa kalkulatu dugu, hazkuntza-ekitatea neurtzen duten 14 adierazleren bidez.

Indize horrek⁴⁰ ez du neurtzen autonomia-erkidegoek helburuko ekitate-atalasea gainditzen duten ala ez, politikak hezkuntza-pobreziarekin lotutako adierazleekiko koherenteak eta egokiak diren baizik. Eta azterketa horren arabera, autonomia-erkidegoen sailkapena egin da.

³⁹ Políticas de apoyo a las familias en Europa: nuevos contextos y nuevas orientaciones, Joseba Zalakain, 2014ko iraila.

⁴⁰ Horrenbestez, hezkuntza-ekitatearen indizeak komunitate eta hiri autonomoen egoera sailkatzen du, 14 atal honetan kontuan hartu diren eta azalduko diren adierazleen arabera. Adierazleei dagokienez, autonomia-erkidegoak eta hiri autonomoak bakoitzaren balioari jarraiki ordenatu dira, leik 19ra (1.a okerrena eta 19.a onena izanik). Indizea, horrenbestez, adierazle guztien baturaz lortutako batezbestekoa da. Adierazleek hainbat alderdi hartzen dituzte kontuan, bai ikasketei buruzkoak, bai ikastetxetik kanpoko bizitzari buruzkoak.

5. taula.
Ikastetxeko hezkuntza-ekitateari buruzko zenbait adierazle.

I. BLOKEA. HEZIKETAREN KALITATEA		
Adierazle zk.	Adierazlearen izena	Definizioa
1	Lehenengo haurtzaroko hezkuntza-eta sendaketa-zerbitzuak	Autonomia-erkidegoko ikastetxe publiko eta pribatuetako eskolatzeta-tasa garbia (0-2 urte) (adin honetako ikasleen eta adin bereko populazio osoaren arteko harremana)
2	Ikastetxean emandako denbora, Lehen Hezkuntzan	Jardunaldi zatitua duten Lehen Hezkuntzako ikastetxeen ehunekoa
3	Ikastetxean emandako denbora, Bigarren Hezkuntzan	Jardunaldi trinkoa duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen ehunekoa
4	Jangela-zerbitzuak dituzten ikastetxeak	Jangela-zerbitzuak eskaintzen dituzten ikastetxe publiko eta pribatuen ehunekoa (Araubide Orokorreko ikastetxe kopuruaren gainean)
5	Ikastetxeetako azpiegitura fisikoen kalitatea	Ikastetxeetako azpiegitura fisikoen kalitatearen PISA indizea. Ikastetxeetako zuzendarien iritzia, ikastetxeetako azpiegitura fisikoen kalitateak irakaskuntzan duen eraginari dagokionez. Zenbat eta indize handiagoa izan, orduan eta hobe da azpiegitura fisikoen kalitatea
6	Internetarako sarbidea duten ikasgelak	Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan Internetarako sarbidea duten ikasgelen ehunekoa
7	Eskola-uzte goiztiarraren tasa	Bigarren Hezkuntzako 2. etapa bukatu gabeak izanik inolako heziketa-prestakuntzarik jasotzen ari ez diren 18 urtetik 24ra bitartekoaren populazioaren ehunekoa.

Iturria: geuk egina, Save the Children erakundearen Aladdin's lamp datuetan oinarrituta.

6. taula.

Ikastetxetik kanpoko hezkuntza-ekitateari buruzko zenbait adierazle.

2. BLOKEA. HAURREN PARTE-HARTZEA, KULTURA- ETA AISIALDI-JARDUEREI DAGOKIENEZ		
Adierazle zk.	Adierazlearen izena	Definizioa
8	Zinema, antzerki eta bestelako ikuskizunetarako bertaratzea	Neska-mutilak (0 urtetik 18ra bitartean) dituzten etxean artean, azken urtean zineman, antzerkian eta bestelako ikuskizunetan 1 € baino gehiago gastatu dituztenen ehunekoa.
9	Museo, lorategi botaniko, liburutegi eta antzekoetarako bertaratzea	Neska-mutilak (0 urtetik 18ra bitartean) dituzten etxean museo, lorategi botaniko, liburutegi eta antzekoetan 1 € baino gehiago gastatu dituztenen ehunekoa.
10	Bideo-jokoetan jolasten emandako denbora	Astelehenetik ostiralera bideo-jokoetan jolasten 1 ordu edo gehiago ematen dituzten 7 urtetik 14ra bitarteko umeen ehunekoa.
11	Telebistaren aurrean emandako denbora	Astelehenetik ostiralera telebista ikusten 1 ordu edo gehiago ematen dituzten 0 urtetik 14ra bitarteko umeen ehunekoa
12	Kirola egiteko ohitura	Astean gutxienez behin ariketa fisiko edo kirol jarduera antolatuak egiten dituzten 6 urtetik 18ra bitarteko neska-mutilen ehunekoa
13	Interneten erabilera	Azken 3 hilabeteetan Internet erabili duten 10 urtetik 15era bitarteko neska-mutilen ehunekoa
14	Etxean liburuak edukitzea	Etxean 50 liburu baino gutxiago dituzten neska-mutilen ehunekoa

Iturria: geuk egina, Save the Children erakundearen Aladdin's lamp txostenean oinarrituta.

3.1. HEZKUNTZA EKITATE INDIZEAREN OSAKETA

Hezkuntza-ekitatearen adierazleak, autonomia-erkidegoen arabera, eskolaren eremuan

0 URTETIK 2 URTERA ARTEKO ESKOLATZEA (LEHEN HAURTZAROKO HEZKUNTZA- ETA ZAINZA-ZERBITZUAK)

Eskolaurreko garaia neska-mutilen bizitzako une erabakigarrietako bat da. Oro har, azken hogeita hamar urteetan, Lehen Hezkuntzaren aurreko irakaskuntzan eskolatutako neska-mutilen kopurua nabarmen hazi da,⁴¹ baina oraindik ere ekitate-ezak daude; bereziki, 4 urtetik 6ra bitarteko adingabeei hirukoei baino estaldura eta arreta handiagoa ematen zaizkielako.⁴² Espainian, bost autonomia-erkidego bakarrik iristen dira eta gainditzen dute Europar Batasunak finkatutako helburura; hau da, 0 urtetik 2ra arteko neska-mutilentzako hezkuntza- eta zaintza-zerbitzuen hornidura % 33koa izatea. Horixe da **Euskadiren** kasua: % 53ko hornidura ematen du eta lehenengo postuan dago. Kontrako aldean, zortzi autonomia-erkidego eta hiri autonomo ez dira % 20ra ere iristen, eta zehazki, horietako bi (Kanariak eta Ceuta) % 10etik behera daude.

IKASTETXEAN EMATEN DEN DENBORA (LEHEN HEZKUNTZA ETA BIGARREN HEZKUNTZA)

LOEn jasotako gutxieneko eskola-egun kopurua 175ekoa da,⁴³ eta autonomia-erkidegoaren arabera aldatzen den arren, aldeak oso txikiak dira. Eskola-jardunaldiaren egituraketak –Espainian, trinkoa (goizez bakarrik) edo zatitua (goizez eta arratsaldean) izan daiteke– haurrek ikastetxean emango duten denbora baldintzatu dezake. Azken hamarkadetan, Bigarren Hezkuntzan jardunaldi trinkoa ezarri da autonomia-erkidego eta hiri autonomo gehienetan; Lehen Hezkuntzan

41 UNESCO 2007: 2, Ancheta, A. 2013-n.

42 UNESCO, 2009, Ancheta, A. 2013-n.

43 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.

ere aurrera egin du (azken 4 urteetan oso bizkor), eta dagoeneko autonomia askotan nagusitzen da. Jardunaldia goizean biltzeak arratsaldean ikastetxeetan neska-mutilen presentzia nabarmen murriztu dezake, eta horrek ikastetxeetako eskolaz kanpoko jardueren jarraipena, eta kasu batzuetan baita jangelena ere, arriskuan jartzen du.⁴⁴ Neska-mutilen kopuru batek jarduera horiek ikastetxetik kanpoko beste espazio batzuetan egiten jarraituko dute, baina beste batzuek utzi egingo dituzte, ez dutelako kostuari edo heldu baten laguntzaz lekualdatzeko beharrari aurre egiteko ahalmenik.⁴⁵ Era berean, bi gurasoak lanean ari diren etxeetan, beren lan-jardunaldiaren antzeko eskola-jardunaldiak dituzten ikastetxeetara jotzen dutenez (itunduak edo pribatuak), hezkuntza publikoan gizarte-bereizketa areagotzeko arriskua dago.⁴⁶

Horri dagokionez, autonomia-erkidego eta hiri autonomoen arabera, Lehen Hezkuntzako egoera asko aldatzen da. **Euskadin**, Aragoi eta Kataluniarekin batera, jardunaldi trinkoa ezartzeko aukera ez da aztertu ere egiten, hau da, jardunaldien % 100 zatituak dira. Batzuetan, adibidez Kanarietan, Extremaduran edo Ceutan, ez dago jardunaldi zatitua duen ikastetxe publiko bakar bat ere (edo ia batere ez); beste erkidego batzuetan, berriz, ia % 100ekoa da (Valentziako Erkidegoa, Nafarroa). Bigarren Hezkuntzako egoera homogeenagoa da, autonomia-erkidego eta hiri autonomoen arabera: jardunaldi trinkoa garbi nagusitzen da, 19 autonomia-erkidego eta hiri autonomoetako ia ikastetxe guztietan. **Euskadik** (% 5 besterik ez) eta Kataluniak (Bigaren Hezkuntzako ikastetxeen % 25ek soilik dute jardunaldi trinkoa) bakarrik eusten diote jardunaldi zatituari hezkuntza-etapa honetan.

44 Espainian, ez dago lagin askoko azterketarik, lan-jardunaldiak jangelaren eta eskolaz kanpoko jardueren jarraipenean edo gizarte-bereizketan daukan eragina ez ezik ikasleen errendimenduaren beraren eta eskola-porrotaren gainekoa ere zenbakitan ebaluatzeko aukera ematen duenik. Autonomia-erkidego ugarian duela urte askotatik eztabaida biziak izaten ari diren arren, jardunaldi-aldaketaren eragin pedagogiko eta sozialari buruzko oinarritzko informazioa falta da; bereziki, Lehen Hezkuntzarekin lotuta.

45 Hezkuntza arloko esku-hartzean profesionalak diren gure erakundeko Espainiako kideek aipatu ditugun faktore negatiboek gizarte maila ahulenerako haurren artean daukaten eragina nabarmendu dute.

46 FERNÁNDEZ ENGUITA, M. (2000): La hora de la escuela. Análisis y valoración de los procesos, los efectos y las opciones de la implantación de la jornada continúa. Salamancako Unibertsitatea eta FEITO, R. (2007): «Tiempos escolares. El debate sobre la jornada escolar continua y partida». Cuadernos de pedagogía, 365. zk.

JANGELA-ZERBITZUA DUTEN IKASTETXEAK

Elikadurak haurren garapen fisiko eta kognitiboan funtsezko eragina du, baita ikasteko ahalmenean eta gizarte-gaitasunetan ere. Gaur egungo testuinguruan, jangela-zerbitzuak eskura jartzea are beharrezkoagoa da, krisi ekonomiko gogorrek familia asko pobretu dituelako eta neska-mutilen osasunean eragin handiak izaten ari delako eta etorkizunean ere izango dituelako, faktore askoren ondorioz; besteak beste, elikadura eskasaren edo okerraren ondorioz.⁴⁷ Jangela-zerbitzuak dituzten ikastetxeen ehunekoak hezkuntza-ekitatea neurtzeko adierazle garrantzitsua da, baina baliabide ekonomiko gutxiko familietatik datozen adingabeen kasuan, zerbitzuaren doakotasuna edo finantzazioa ere kontuan hartu behar dira.

Autonomia-erkidego eta hiri autonomoen artean alde handiak daude jangela-zerbitzuak eskaintzen dituzten ikastetxeen ehunekoari dagokionez. Oro har, batezbestekoa % 53,7koa den arren (hau da, ia bi ikastetxetik batek ez du zerbitzu hori eskaintzen), hiri autonomoetan % 27ra jaisten da, Ceutaren kasuan, eta % 39ra, Melillaren kasuan. Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Murtzia Eskualdea ere batezbesteko nazionaletik behera daude. Aldiz, ehuneko handienak Madrilgo Erkidegoan (ikastetxeen % 84k eskaintzen dute zerbitzu hori), Euskadin, Errioxan (% 77, bi kasuetan) eta Valentziako Erkidegoan (% 74) ikusten dira. Hala ere, ez dago zerbitzu hori ikastetxe guztietan eskaintzen duen autonomia-erkidegorik.

47 «Crisis económica, pobreza e infancia: ¿qué podemos esperar en el corto y largo plazo para los niños y las niñas de la crisis?» (Krisi ekonomikoa, pobrezia eta haurtzarora: zer espero dezakegu, epe labur eta luzean, krisialdian jaiotako neska-mutilentzat?). SEESPASen txostena, 2014. Gac. Sanit, 28. 2014. Flores et al. 2014.

IKASTETXEETAKO AZPIEGITURA FISIKOEN KALITATEA

Azpiegituren kalitateak⁴⁸ ikastetxeetako eskola-jardueraren eta eskolaz kanpoko jardueraren garapena baldintzatu dezake. Ikastetxe batzuen zaharkitzeak hezkuntza-komunitatearen erabilera eta behar berrietara egokitzea zailtzen du, eta egokitu ahal izateko, inbertsio handiak egin behar dira. Era berean, ingurumen-baldintzek ez dute ikastetxeetako jardueren garapena oztopatu behar. Azpiegitura fisikoen kalitatea 2012ko PISA txostenean jasotako ikastetxeetako azpiegitura fisikoen kalitate-indizean oinarrituta neurtu da. Indizeak hiru alderdi batera baloratzen ditu (ikastetxeen eraikinak eta lurrak, berokuntza-sistema, aire-sistema eta aire girotua eta ikasgelak) eta ikastetxeko zuzendaritzaren balorazioaren arabera azpiegiturek hezkuntza-jardueren (eskolakoak eta eskolaz kanpokoak) garapenean duten eraginean (negatiboa) oinarrituz osatu da. Zenbat eta balio txikiagoa izan orduan eta negatiboagoa da indizea; bereziki, balioak negatiboak badira. **Euskadiren** puntuazioak (21,8) nabarmen gaitzen du autonomia-erkidegoen batezbestekoa (6,9), eta bere aurretik Errioxa (22,4) eta Madril (29,9) bakarrik daude.

INTERNETERAKO SARBIDEA DUTEN IKASGELAK

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak duela hamarkada bat adierazten zuen bezala⁴⁹, mundu osoko hezkuntza-sistemek informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak (IKT) ikasleei gaur egungo testuingururako tresnak eta ezagutzak emateko erabiltzearen erronkari aurre egin behar diete. Gainera, ikastetxeak kalitatezkoak izateko, berritzeko prest egon behar dute, eta IKTak erabiltzeko gai izateaz gain, haurrei erabiltzen erakusteko gai ere izan behar dute⁵⁰. Ikasgeletan ekipo informatikoak edukitzeak bestelako jarrera positiboak sustatzen eta indartzen ditu, adibidez: ikaskideei laguntzea, Interneten aurkitutako informazio garrantzitsua partekatzea

48 Zehatzago esateko, PISA indizearen arabera, azpiegituren kalitatearen definizio zehatza honako hau da: «The index of quality of physicals' infrastructure (SCMATBUI) was derived from three items measuring school principals' perceptions of potential factors hindering instruction at their school. These factors are: i) shortage or inadequacy of school buildings and grounds; ii) shortage or inadequacy of heating/cooling and lighting systems; and iii) shortage or inadequacy of instructional space (e.g. classrooms). As all items were inverted for scaling, higher values on this index indicate better quality of physical infrastructure.»

49 UNESCO, 2004.

50 Aladdin's Lamp txostenean adierazten den bezala (Save the Children, 2014).

eta arazoak dituztenei konpontzen laguntzea. Horiek erabiltzeak, halaber, ideiak trukitzea, eztabaidatzea, erabakiak elkarrekin hartzea eta argudioetan oinarritutako iritzia arrazoitzea sustatzen du.

Euskadik ikasgelen % 90ek Internetarako sarbidea duten autonomia-erkidego eta hiri autonomo kopuru handiaren parte da, Murtziako Eskualde, Melilla, Kantabria, Errioxa, Valentziako Erkidego, Aragoi, Nafarroa, Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Gaztela eta Leonekin batera. Katalunia bakarrik iristen da % 100era; beste muturrean, aldiz, Andaluzia dago, non kopurua oraindik ez den % 80ra iristen, eta Asturiasko Printzerriaren maila ere antzekoa da (% 81).

ESKOLA-UZTE GOIZTIARRA

Espanian, aipatu dugun bezala, eskola-uztearen tasa handia denez eta gazteen arteko langabezia-tasa oso altua (16 urtetik 24ra bitartekoen artean % 50etik gorakoa 2014an), auzi hau garrantzitsuenetarikoa da «hezkuntza-ekitateaz» ari garenean. Autonomia-erkidegoen arabera, **Euskadi** bakarrik iritsi da Europar Batasuneko helburura, % 10ekoa izatera, baina Kantabria eta Nafarroa gertu daude, % 12ko eta % 13ko tasak baitituzte, hurrenez hurren. Murtziako Eskualdeak, Gaztela-Mantxak, Kanariak, Kataluniak, Andaluziak, Extremadurak, Balearrek, Ceutak eta Melillak % 25etik gorako tasak dituzte, beraz, 2020rako Estrategian jasota dagoen % 10eko helburutik oso urrun daude. Gainerako autonomia-erkidegoak egoera berean daude; oso ehuneko altuak dituzte, kasu guztietan % 19tik gorakoak. Hau da, autonomia-erkidego eta hiri autonomo horietan, 18 urtetik 24ra bitarteko lau gaztetik batek, gutxienez, ez du Bigarren Hezkuntza bukatzen eta ondoren ez du inolako heziketa motarik jasotzen.

3.1.2. Hezkuntza-ekitatearen adierazleak, autonomia-erkidegoen arabera, eskolaren eremutik kanpo

Hezkuntza-pobrezia neska-mutilak bizi diren inguruneko aukera-faltarekin zuzenki lotuta ere badago. Horregatik, ondorengo adierazleen analisisan barne hartu dugu:

JARDUERA KULTURALAK

Kultura- eta arte-jarduerak beren prestakuntzaren funtsezko alderdi bat dira eta nor bere garapen eta hazkuntza sustatzen dute, ikaskuntza, jakintza zabaltzen dute eta gizarteratzeko gaitasunean eragin positiboa dute.⁵¹ 2013an zineman, antzerkian eta bestelako ikuskizunetan gutxienez euro bat gastatu duten familien ehunekoa ez da % 29ra iristen, batez beste, autonomia-erkidegoetan, eta museo, lorategi botaniko, liburutegi eta antzekoen kasuan, % 4,2ra jaisten da kopurua.⁵² Hala ere, bi adierazleetan, autonomia-erkidego eta hiri autonomoen arabera alde handiak ikusten dira. Adibidez, zinema, antzerki eta bestelako ikuskizunetarako bertaratzea, **Euskadin**, Madrilgo Erkidegoan eta Ceutan bezala, besteak beste, % 40tik gorakoa da. Baina beste bederatzia autonomia-erkidego gehienez ere % 25era iristen dira (Valentziako Erkidegoa, Katalunia eta Andaluzia, Melilla, Kanariak, Murtziako Eskualdea, Gaztela eta Leon, Asturiasko Printzerria eta Galizia).

Museo, lorategi botaniko, liburutegi eta antzekoetara bertaratzeari dagokionez, Madrilgo Erkidegoan bakarrik gainditzen da % 10eko kopurua. Erkidego horretan, 18 urtetik beherako neska-mutilak dituzten familien % 14 inguruk egiten dituzte bisita horiek. **Euskadiren** puntuazioa

51 Nazio Batuen Erakundearen Haurren Eskubideen Konbentzioko 31.2 artikuluan xedatzen denez, «estatu-kideek haurren kultura- eta arte-bizitzan osoki parte hartzeko eskubidea errespetatu eta sustatuko dute, eta kultura-, arte-, jolas- eta aisialdi-bizitzan berdintasunez parte hartzeko aukerak emango dizkiete».

52 Espainiako kultura-ohitura eta -jardueren iturri nagusiak ez du adingabekoei buruzko autonomia-erkidegoen araberako informaziorik ematen eta ez dago aldagai horien inguruko bestelako iturri homogeneorik. Horregatik, adierazle hauek familiaren eremukoak direnez, 18 urtetik beherako neska-mutilak dituzten familien kultura-jardueretarako bertaratzea erabili dugu neurketa egiteko oinarri gisa. Ildo horretan, familiak zineman, antzerkian edo bestelako ikuskizunetan urtean gutxienez 1 €-ko gastua egitea hartu dugu erreferentziazat jarduera horietara edo museo, lorategi botaniko, liburutegi eta antzekoetara bertaratzen dela kontsideratzeko.

% 6,6koa da, autonomia-erkidegoen batezbestekoa baino dezente handiagoa (% 4,2) eta Aragoi, Ceuta eta Madrilgo Erkidegoa bakarrik daude bere aurretik. Kontrako aldean, Melillan, Valentziako Erkidegoan eta Galizian, 18 urtetik beherako neska-mutilak dituzten familien artean, jarduera horietan gutxienez euro bat gastatu zutenen kopurua % 1etik beherakoa izan zen.

SEDENTARISMOA ETA KIROLA EGITEA

Espainia Europar Batasuneko lau herrialde sedentarioenetako bat da.⁵³ 6 urtetik 9ra bitarteko neska-mutilen kasuan,⁵⁴ % 38k gehiegizko pisua daukate (aztertutako herrialdeetako ehuneko handiena). Espainiako Pediatria Elkartearen arabera, sedentarismoa da egoera horren eragile nagusia (baina ez bakarra). Neska-mutilen ohitura sedentario nagusietako bat, hainbat azterketaren arabera, telebistaren edo ordenagailuaren aurrean edo bideo-jokoetan jolasten denbora luzea ematea da. Alderdi honetan eragin negatiboa izaten ari den elementuetako bat da, aldatzeko zailena, gainera.⁵⁵ Ildo horretan, auzi honi heltzeko hiru adierazle erabiltzea garrantzitsutzat jo da: bideo-jokoetan, ordenagailuan edo Interneten jolasten ordubete edo gehiago (astelehenetik ostiralera) ematen duten neska-mutilak, telebista ikusten ordubete edo gehiago (astelehenetik ostiralera) ematen duten neska-mutil eta nerabeak, eta azkenik, ariketa fisikoak edo kirola egiten ematen duten denbora.

Lehenengo adierazlearekin lotuta, Melilla hiri autonomoan (% 73) eta Murtziako Eskualdean (% 59) neska-mutilen erdiak baino gehiagok bideo-jokoetan, ordenagailuan edo Interneten jolasten ordubete edo gehiago ematen dutela ikusten da; hots, autonomia-erkidegoetako batezbestekoa baino askoz ere kopuru handiagoa da. % 34,3koa da aipatutako batezbestekoa eta Euskadi hortxe bertan kokatuta dago (% 34). Aldiz, Gaztela eta Leonen (% 22) eta Nafarroan (% 24), adibidez, kopuruak % 25etik beherakoak dira.

Bigarrenari dagokionez, telebistaren aurrean egunean gutxienez ordubete ematen duten neska-mutilen kopurua handiagoa da (batez beste % 63,1ekoa). Kopuru txikienak **Euskadikoak** (% 50), eta bere aurretik, Kantabriakoak

53 Terreros et al. (2011).

54 Osasunaren Mundu Erakundearen arabera (OME, 2007).

55 Villagrán et al. (2010).

(% 45) dira. Batezbesteko horren azpitik dauden bost autonomia-erkidegoak Katalunia, Gaztela eta Leon, Galizia, Asturiasko Printzerria eta Nafarroa dira. Melilla hiri autonomoaren kasuan, batezbesteko nazionala baino askoz gorago dago (% 25etik gorako aldea) eta haren ondoren Ceuta eta Kanariak.

Hirugarren adierazleari dagokionez, sedentarismoari aurre egiteko kirola egitea funtsezkoa dela aipatu beharra dago. Gainera, neska-mutilen eta nerabeen hazkuntzan, garapen fisikoan, mentalean, sozialean eta hezkuntza arlokoan funtsezko beste elementuetako bat da, eta gaur egun, ez da zalantzan jartzen orainaldian eta etorkizunean eragin positiboa duela. 2011. urtean, aste osoan batere ariketa fisikorik edo kirolik egiten ez zuten 6 urtetik 18ra bitarteko neska-mutilen ehunekoa % 37koa izan zen. Autonomia-erkidego eta hiri autonomoen arabera, berriz ere, alde handiak zeuden. Andaluziako neska-mutilen ia erdiak ez zuten kirolik edo ariketa fisiko antolaturik egiten (edo astean behin baino gutxiagotan egiten zuten). Ehuneko hori beste autonomia-erkidego eta hiri autonomo batzuetakoaren antzekoa zen, adibidez: Extremadura, Murtzia, Kantabria, Ceuta eta Asturiaskoarena (horien guztien kopurua % 40tik gorakoa zen). Aldiz, haurren artean sedentarismo kopuru txikienak Euskadin (% 22) ikusten dira, eta ondoren, Nafarroan (% 29) eta Balearretan (% 30).

INTERNETEN ERABILERA

Internet gaizki erabiltzeak neska, mutil eta nerabeei arriskuak sor diezazkiekeen arren,⁵⁶ ondo erabiltzeak eta erabilera eraikitzailea izateak ikasteko aukera asko sortu ditzake, informazioa, ezagutza, iritziak, hezkuntza-tresnak... eskuratzeko ahalmen handieneko tresnetako bat delako, baita komunikazio, partaidetza eta elkarrekintzarako ahalmentsuenetakoa ere. Azken urteetan, Interneterako sarbide eta erabilera aukerak nabarmen handitu dira, baina oraindik ere haur batzuek ez dute ikastetxeetatik kanpo erabiltzen.

Autonomia-erkidego guztiak kontuan hartuta, azken hiru hilabeteetan ikastetxetik kanpo Internetera sartu diren 10 urtetik 15era bitarteko neska-mutilen batez bestekoa % 92,5 ingurukoa da. Katalunia batezbesteko horretatik oso gertu dago, % 93ko sarbidea baitu. Aldiz, Extremaduran % 81ekoa da, Gaztela eta Leonen % 86koa eta Gaztela-Mantxa, Melilla eta

56 Save the Children, (2014).

Errioxan % 89koa. Erabilera-ehuneko handienak Ceutakoak, Asturiasko Printzerrikoak eta Nafarroakoak dira. Euskadin eta gainerako autonomia-erkidegoetan, azken hiru hilabeteetan Internet erabili duten neska-mutilen kopurua % 90etik gorakoa da.

IRAKURTZEKO OHITURA

Neska-mutilen artean, irakurtzeko ohituraren garrantzia ikasteko eta ezagutzak bereganatzeko orduan dituen onura ugarietan datza. Gainera, hainbat gaitasun garatzen laguntzen du, adibidez: memoria, lengoia, abstrakzioa, sormena eta irudimena. Baina garapen pertsonal eta sozialerako ere funtsezkoa da, liburuak inguratzen dituen mundua deskubritzeko, amesteko eta ulertzeko aukera ematen dietelako, pertsona ezberdinak ulertzeko eta bestelako errealitate, kultura eta pentsamolde batzuk ezagutzeko. Hezkuntza-pobrezia liburuak irakurtzeko aukerarik ezean ere islatzen da, askotan etxean libururik ez edukitzearekin lotuta baitago (normalean, gurasoen hezkuntza eta kultur mailarekin zerikusia dauka) eta/edo zerbitzu publikoen gabeziarekin (liburutegiak, irakurmena sustatzeko jarduerak, eta abar). Hala ere, ez dago neska, mutil eta nerabeen autonomia-erkidegoen araberrako irakurketa-ohiturei buruzko daturik ematen duen estatistika-iturri ofizialik, beraz, auzi horri heltzeko, UNICEFen etxeetako liburu kopuruari buruzko txostenean (2012) agertzen den datua erabili dugu.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) lehenengo mailan dauden adingabekoen etheen artean, berrogeita hamar liburu baino gutxiago dituztenen, eta beraz, printzipioz irakurtzeko aukera gutxiago dituztenen batezbestekoa % 30ekoa da, autonomia-erkidego guztiak kontuan hartuta. Kanarrietan % 45era igotzen da, eta horren atzetik, Murtziako Eskualdea % 41era. Katalunia eta Extremadura batezbesteko nazionalaren gainetik daude, % 35eko kopuruarekin, eta jarraian, Melilla (% 39) eta Ceuta (% 37). Kontrako aldean, 50 liburu baino gutxiago dituzten etheen ehuneko txikiena den autonomia-erkidegoen artean, **Euskadi** dago (% 27), eta haren atzetik, Valentziako Erkidegoa (% 25), Madrilgo Erkidegoa, Asturiasko Printzerria eta Nafarroa (% 20, hiru erkidegoetan) eta Gaztela eta Leon (% 21).

3.2. HEZKUNTZA-EKITATEAREN SAVE THE CHILDREN INDIZEA

Hezkuntza-ekitatearen Save the Children indizearen emaitzei erreparatuz, autonomia-erkidego eta hiri autonomoak⁵⁷ bost multzotan banatzen dira,⁵⁸ hezkuntza-ekitate mailari dagokionez. Horietako lehenean, oso maila txikian dauden autonomia-erkidego eta hiri autonomoak sartzen dira, eta horien barruan, Melilla eta Kanariak daude. Azkenekoan, hezkuntza-ekitate maila altuko erkidegoak daude, eta horien artean, Euskadi. Erkidego gehienak erdian kokatuta daude. Hala ere, indize hau ikastetxeetako eta ikastetxeetatik kanpoko hezkuntza-ekitatearen emaitza da, eta autonomia-erkidego batzuek eremu batean eta bestean oso kokapen ezberdina daukate, jarraian aurkeztuko ditugun azpiindizeetan ikusiko dugun bezala. Lor daitekeen gehieneko puntuazioa 19 puntukoa da.

Euskadikoa (16,2) da komunitate eta hiri autonomo guztien arteko hezkuntza-ekitate maila altuena. Atzetik ditu Katalunia (12,2), Madril (13,6), Nafarroa (11,9) eta Aragoi (11,6), guztiak ere maila ertain-altuarekin. Azpiindizeei dagokienez, Euskadiko eskolaren arloko hezkuntza-ekitateari buruzkoak oso maila altua lortu du (17,6). Indize globala osatzeko erabilitako beste azpiindizea eskolaren eremutik kanpoko hezkuntza-ekitatearena da. Eremu horretan, Euskadiko hezkuntza-ekitate maila (14,9) altua da, baita Madrilekoa (14,7) ere.

57 Aurretik esan dugun bezala, autonomia-hirien eta probintzia bakarreko erkidegoen kasuan, baliteke adierazle batzuk laginketa-akats handien eraginpean egotea. Dena den, horrek hezkuntza-ekitatearen indizean eta azpiindizeetan duten kokapen erlatiboan eragin txikia daukala kontsideratzen da, bai adierazle kopuruagatik bai indizeak sortzeko erabilitako metodologiagatik, ez baita balio absolututan oinarritzen, posizio erlatiboetan baizik.


58 Beti beste autonomia-erkidego eta hiri autonomo batzuekin alderatuta.

HEZKUNTZA- EKITATEARI BURUZKO SAVE THE CHILDREN INDIZEA

ESKOLAKO HEZKUNTZA-EKITATEARI BURUZKO ADIERAZLEAK

Batez besteko baliok autonomia-erkidegoen arabera
0 eta 19 puntu artean

Adierazle bakoitzerako % erreferentzia
1. Erkidegoko batezbestekoa
2. EB 2020ko helburua



ESKOLAZ KANPOKO HEZKUNTZA-EKITATEARI BURUZKO ADIERAZLEAK



Zinema, antzokia,
ikuskitunak



Museoak eta
antzekoak



Bideojokoak,
ordenagailua...



Telebista




Jarduera fisikoa
edo kirola



Internet



Etxean 50 liburu
baino gutxiago



Hezkuntza-ekitatearen indizean hautemandako arazo nagusietara egokituta badaude jarduera publikoak, politika publikoak egokiak dira.


3.3. HEZKUNTZA POBREZIAREN AURKAKO POLITIKAK ETA POLITIKA HORIEK EBALUATZEA

Erkidego bakoitzaren berariazko politiken azaleko azterketa eta horien ebaluazioa egin da, horien egokitasuna eta Estatuko eta Europako politikekiko koherentzia kontuan hartuta. Hezkuntza-ekitatearen Save the Children adierazlea eraikitzeke metodoarekin bat etorritik, erkidego eta hiri autonomo bakoitzeko hezkuntza-pobreziaaren aurkako politikak ahalik eta objektibotasun handienaz aztertzeke metodologia garatu da.⁵⁹

Berariazko politiken egokitasun-analisiak eskainitako emaitzen arabera, erkidegoak eta hiriak lau taldetan bereiz daitezke, hezkuntza-ekitatearen eta berariazko politiken hedaduraren egoerari erreparatuta.

⁵⁹ Metodologiaren eraketa azaltzen du osorik Iluminando el futuro. Invertir en educación es luchar contra la pobreza infantil txostenaren bertsio osoan.

26. grafikoa
 Hezkuntza-ekitatearen aldeko politiken egokitasun orokorra
 autonomia-erkidegoetan.



Iturria:
 Geuk egina.

Hezkuntza-pobreziaren maila (askotariko dimentsioetan)

a) Erkidego dibergenteak. Talde horretan sailkatu dira hezkuntza-ekitatearen dimentsio gehienetan balio baxu samarrak eta gainerako erkidegoek baino jarduera-maila nabarmen txikiagoak dituzten erkidegoak. Gainera, aurreikuspenen arabera, posizionamendu hobea duten erkidegoen eta talde honetakoen artean dagoen aldea gero eta handiagoa izango da. Talde honen kide dira honako hauek: Asturiasko Printzerria, Balearrak, Gaztela-Mantxa, Kanariak eta Murtzia.


b.) Erkidego konbergenteak. Talde honetako erkidego eta hiri autonomoek balio ertain edo baxuak dituzte hezkuntza-ekitatearen esparru gehienetan, baina, aurrekoek ez bezala, berariazko politika publiko osoagoak garatzen ari dira. Oso talde heterogeneoa da; esaterako, esparrua guztietan ekitate-maila oso txikia duten bi hiri autonomoak (Ceuta eta Melilla); arazo handiak dituzten autonomia-erkidegoak (Andaluzia eta Extremadura), baina horietako batzuei aurre egiten ari direnak, jarduera-diferentzial positiboak lortuz; eta hezkuntza-ekitatearen esparruetan oso balio desberdinak dituzten erkidegoak (Gaztela-Leon eta Galizia), esparruetako batzuen egoerak okerrera egin duenak jarduera egokirik eta/edo nahikorik egin ez denez.

c) Alertan dauden erkidegoak. Talde horretan lau autonomia-erkidego daude (Aragoi, Kantabria, Madrid eta Valentzia), oro har, maila ertain-altuko hezkuntza-ekitateko politikak gauzatu arren, berariazko politiketan jarduera-maila txikia dutenez, epe labur eta ertainean arazoak larriagotuta izan ditzaketenak.

d) Erkidego liderrak. Hezkuntza-ekitatea sustatzen liderrak diren erkidegoen taldea. Oro har, ekitatearen esparru gehienetan balio ertain-altuak edo altuak dituzten arren, berariazko jarduera zabal eta osoak gauzaten jarraitzen dute, formalizatuta eta baliabide-kopuru handi samar batez hornituta. Hala ere, taldekideen artean alde nabarmenak hauteman daitezke.⁶⁰ Talde horretan daude Errioxa, Euskadi, Katalunia eta Nafarroa.

⁶⁰ Nafarroan eta Euskadin ez dago eskuragarri eskolaz kanpoko berariazko politiken informazioa, hautatutako adierazleetan erabilitako iturriak ez duelako erkidego horietako udalerrien informaziorik biltzen.

43. grafikoa.
Hezkuntza-ekitatearen aldeko politiken egokitasuna, Euskadiren kasuan.



Hezkuntza-pobreziaren maila (askotariko dimentsioetan)

- Eskolatzeko goiztiarra (0 urtetik 3ra)
- Lehen Hezkuntzako eskolaz kanpoko jardueretarako eskola-orduak
- Ikastetxeetako jangela-zerbitzuak
- Ikastetxeetako azpiegituren kalitatea
- Eskola-uzte goiztiarra
- Eskola-uzte goiztiarra
- INDIZE GLOBALA

Autonomia-erkidego bateko jarduera publikoak Estatuan eta Europar Batasuneko gomendioekin lerrokatuta badaude, politika publikoak koherenteak dira.

Koherentzia-analisiari dagokionez, balizko hezkuntza-ekitate eza konpontzeko jarduera bereziak herrialde osorako ezarritako politikekin eta jarduera-ildoekin eta Europar Batasuneko gomendioekin eta jarraibideekin⁶¹ bat datozen aztertu behar da politika publikoen ebaluazioan. Ekitatea hezkuntza-prozesu osoan bermatu behar da. Horregatik, politika publikoek eta aurrekontuek koherenteak izan behar dute, eta printzipio hori aplikatu behar dute zerbitzuak, prozedurak eta edukiak nola jaso eta emaitzak nola lortu ezartzeko.⁶²

Legenda

- √ Koherentzia maila ALTUA
- ~ Koherentzia maila ERTAINA
- × Koherentzia maila BAXUA

⁶¹ Iluminando el futuro. Invertir en educación es luchar contra la pobreza infantil txostenean zehaztasun handiz adierazten dute zein diren herrialdeko politikak eta jardura-ildoak eta Europar Batasuneko zer gomendioekin eta jarraibideekin neurtzen den haien koherentzia.

⁶² Iluminando el futuro. Invertir en educación es luchar contra la pobreza infantil txostenean autonomia-erkidegoen koherentzia-neurketaren emaitzen fitxak daude jasota.

26. taula.
Hezkuntza-pobreziaren aurkako politiken kanpo-koherentzia.
Euskal Autonomia Erkidegoa.

EUSKADI			
Eremuak	Autonomia Erkidegoaren jarduerak	Koherentzia	
		EBren politikak	Nazio mailako politikak
Eskolatze goiztiarra (0 urtetik 3ra)	Zerbitzu-hornidura handitzea	√	√
	Diru-laguntzak zero eta hiru urte bitarteko Haur Eskoletako arduradunak diren Toki Erakundeei eta Irakasleak prestatzeko programak		
	Ikasle ijitoen integrazioa hobetzeko plana		
Lehen Hezkuntzako eskolaz kanpoko jardueretako eskola-orduak	HAUSPOA proiektu pilotua	√	√
	Eusko Jaurlaritzaren, Diputazioen eta Udalen finantziakzioa		
Ikastetxeetako jangela-zerbitzuak	Eskola-jantokirako bekak eta laguntzak daude	~	~
	Udan ez dago jantoki-programarik		
Ikastetxeetako azpiegituren kalitatea	Euskal ikastetxe publikoetako Azpiegitura Plana 2014-2018	√	√
Ikasgelen konektagarritasuna	"Eskola 2.0" proiektuaren 2014ko indarraldia eta IKTen eta hezkuntzaren alorreko programen ugaritasuna ("Pelutxe proiektua" eta "Gure herrietan zehar", besteak beste)	√	√
Eskola-uzte goiztiarra	Bidelaguna programa (PROA) eta hezkuntza-errefortzu espezifikoko programa (PREE), Baterako hezkuntzako programak, Heziberri 202	√	√
	Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana. 2012-2015		
Kultura, eskolaz kanpoko jardueren garaiak	Haur eta gazteen irakurketa eta arte eszenikoekin lotutako bestelako jarduerak sustatzeko lerro espezifikoa	√	√
Kirola eta aisialdia, eskolaz kanpoko jardueren garaiak	Eskola-kirolaren eta eskola-jolasen programa	√	√

Iturria: Geuk egina.



4. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Save the Children erakundeak diseinatutako **Hezkuntza-ekitatearen indizearen** abantaila nagusia hezkuntza-ekitateko politikak eratzen dituzten arduradunei hezkuntza-politiken koherentzia- eta egokitasun-maila neurtzeko informazioa ematea da. Arazo horiei haurtzaroan inbertitu eta hezkuntza-sistemak hobetzeko politikak bidez aurre egiten ez bazaie, hezkuntza-pobrezia bizitza osorako pobrezia bihurtzeko mehatxuak bere horretan iraungo du. Indize horren arabera sailkapenaren buruan dauden erkidegoak, **Euskadi**, kasu, ez daude haurren pobrezia, berdintasun ezaren, gazteen langabeziaren eta eskola uztearen arazoetatik libre. **Euskadiren** indizeak positiboak diren arren, bereziki, eskola-uzte goiztiarrarena $-9,9\%$; Europa-mailako helburua (10%) betetzen duen erkidego bakarra Espainian, desberdintasun-koefizientea $29,5\%$ koa da (Espainiako batezbestekotik behera; $33,7\%$) eta gazteen langabezia $43,29\%$ koa (Espainian, $51,8\%$). Gainera, haurren pobrezia-indizearen arabera, Euskadiko 5 haurretatik 1 pobrezian dago. Espainian, berriz, 3tik 1.

Hezkuntza-pobrezia mehatxuak hor darrai, beraz, eta desabantaila-ziklotik irteteko, beharrezkoa da hezkuntza-sistemetan inbertitzeko estrategiari heldzea: hezkuntzan inbertitzea haurren pobrezia aurka borrokatzea da. Abiapuntua hori izanik, handia da erronka. Edonola ere, nagusiki haurrei eragiten dien pobrezia eta bazterkeriaren zikloa alderantzikatu eta apurtu daiteke. Ezin da hezkuntza ausaz antolatu edo «harri, orri, ar» eginez erabaki, beti baten bat kanpo uzteko. Hezkuntza guztientzako berdina izan behar da.

Hezkuntza-ekitatearen indizea erabiltzeak aukera ematen die autonomia-erkidegoei beren politiken lorpen-maila eta egiteko duten bidea ezagutzeko.



EKITATEA LORTZEKO MEHATXUAK



Desberdintasunaren Giniren koefizientea**



AROE 18tik urteetik beherakoak




25 urtetik beherakoen langabezia



Ikasketak garai zaurretik uztea (18 eta 24 urte artean)

Autonomia-erkidegoak hezkuntza-ekitatearen eta ekintza politikoaren arabera

Batez besteko %-ak adierazle bakoitzerako
1. Espainiako batezbestekoa
2. EB 2020ko helburua



AUTONOMÍA ERKIDEGOAK HEZKUNTZA EKITATEAREN ETA EKINTZA POLITIKOEN ARABERA

Komunitate liderrak

Hezkuntza-ekitate maila altuak eta berriazko politika zabalak dituztenak.

Alertan dauden komunitateak

Hezkuntza-ekitate maila nahiko altuak eta gutxi garatutako berriazko politikak dituztenak.

Komunitate konbergenteak

Hezkuntza-ekitate maila baxuak eta berriazko politika egokiak dituztenak.

Komunitate dibergenteak

Hezkuntza-ekitate maila baxuak eta gutxi garatutako berriazko politikak dituztenak.


**Giniren koefizienteak diru-sarreretako desberdintasuna neurtzeko erabiltzen da (oro har), 0 eta 1 arteko zenbaki batez adierazten da. 0k erabateko berdintasuna adierazten du (denek diru-sarrera berberak dituzte) eta 1ek, erabateko desberdintasuna (pertsona batek diru-sarrera guztiak jasotzen ditu eta gainerakoek bat ere ez). Giniren indizea Giniren koefizientea da, portzentaje moduan adierazita (zifra bera da, 100gatik biderkatuta).



Desberdintasunaren Giniren koefizientea**



AROE 18tik urteetik beherakoak




25 urtetik beherakoen langabezia



Ikasketak garaz aurretik uztea (18 eta 24 urte artean)

Autonomia-erkidegoak hezkuntza-ekitatearen eta ekintza politikoaren arabera

Batez besteko %-ak adierazle bakoitzerako
1. Espainiako batezbestekoa
2. EB 2020ko helburua



4.1. ONDORIOAK

Hezkuntza giltzarria da pobrezia-aren belaunaldi arteko transmisioa eten eta gizarte-kohesioa lortzeko.

Haurren pobrezia-ak gizarte-desberdintasunak betikitzen ditu, gizartearen geroa kolokan jarriz. Konplexutasun handiko fenomeno bihurtu da, ondorio ekonomiko eta sozial larrikoa, eta egiturazko aldaketa jasangarriak eragitera bideratutako politika publikoak behar ditu. Hala, honakoa dio Europar Batasunak: «Hezkuntza-sistemek desabantailen zikloa apurtzeko duten ahalmena areagotu behar da, eta ume guztiek kalitate handiko heziketa inklusiboa jaso dezaketela bermatu behar dute, haien garapen emozionala, soziala, kognitiboa eta fisikoa garatzeko».⁶³

Hezkuntza-sarbide egokia funtsezkoa da haurren eskubideak bermatzeko eta helduaroan diru-sarrera segurua izateko aukerak eskaintzeko.

Hezkuntzarako eskubidea erabiltzeak banakoari potentzial handiena lortzeko beharrezko gaitasunak ematen dizkie banakoei, eta hala, bizi-hautuak askatasunez egin ahal izatekoak eta bere nahien eta asmoen arabera garatzekoak.

Hezkuntza-sistemaren maila guztietan inbertitzea, prestakuntzan eta ikerkuntzan ere bai, funtsezko aldagaia da gizartearen eta herritarren etorkizunerako.

Oraingo zein etorkizuneko hezkuntzan inbertitzen ez duen gizarte bat, berrikuntza eta etorkizuneko hazkundera eta garapena bermatuko dituzten ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena eta banaketa sustatzen ez dituen gizartea da. Hala bada, kalitatezko hezkuntza inklusibo eta ekitatiboa gakoa da pobrezia-aren eta berdintasun ezaren aurka borrokatzeko.

63 BATZORDEAREN GOMENDIOA, 2013ko otsailaren 20koa: Haurtzaroan inbertitzea, desabantailen zikloa apurtzea (2013/112/EB).

Hezkuntzarako eskubidea, haurra garapen pertsonal handienera iristeko bide gisa hartuta, eskolan leku bat hartzea baino gehiago da.

Eskolaz kanpoko jarduerak, eskolako jangelak edo familiek parte hartzen duten jarduerak funtsezkoak dira haurraren hazkunde pertsonalean, gizarteratzeko, eskola porrota murrizteko eta lan- zein familia-bizitza uztartzeko lagungarriak direlako.

Edonola ere, eskola-adineko pertsonak bizi diren etxebizitzetako bizi-baldintzen okertzearekin loturiko hezkuntza-bazterketako prozesuak ikusten ari gara.

Haurraren garapen pertsonaleko prozesuaren funtsezko alderdien artean, arreta berezia eskaini behar zaie haurren ezaugarri sozial, ekonomiko, kultural eta pertsonalei, ez daitezten aukera-berdintasunerako oztopo izan, nagusiki, egoera ahulenean daudenentzat.

Espanian hezkuntza doakoa izateak ez du bermatzen gizarte-bazterketa egoeran dauden haurrek dagokien eskubidea egiaz gauzatu dezaketenik.

Administrazioek egun bermatzen duten «ikaspostua-irakaslea» erlazioaren kostuaz gain, hezkuntzak hainbat kostu ekidinezin ditu, eskolaratzeari eta hezkuntza-sisteman bertan gauzatutako jarduerari lotuta daudenak. Haurren garapen pertsonal gorena lortzeko funtsezkoak izan arren, hezkuntza-eskubidetik kanpo utzi izan dira, bateko zein besteko gobernuek hala iritzita. Kostu horiei hezkuntzaren kostu ezker deitu diegu, doako kontzeptuetatik kanpo daudenez, zati batean edo osorik familiek ordaintzekoak baitira: jangela, garraioa, ikasmateriala, eskolaz kanpoko jarduerak, etab.

Nazio Batuen Erakundeak espresuki adierazi du doakotasuna hezkuntzaren ondoriozko gastu guztietara hedatzea premiazkoa dela. Hala ere, Espainian, gastu horiek zati batean beken eta laguntzen bidez ordaintzen dira, administrazioak uneko iritziaren arabera onartutako diru-laguntza publiko gisa; alegia, lehentasun politikoen eta aurrekontu erabilgarritasunaren mende daude. Hori dela eta, beka eta laguntza sistemaren estaldura gorabeheratsua izan da azken urteetan, egoera ekonomikoa eta kasuan kasuko erkidegoaren politika gorabehera.

Ekitatea lortzeko bidean, atzera ez, aurrera egitea da kontua ikasle guztien aukera-berdintasuna bermatzeko, hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren inklusioaren alde eginez eta egoera ahulean dauden kolektiboek arreta berezia eskainiz.

Estatistika ofizialek ez diote behar besteko arreta eskaintzen haurtzaroari eta bere berezitasunei.

Beharrezkoa da informazioa eguneratuta eta erabilgarri egotea eta publikoa eta homogeneoa izatea, bai Estatu mailakoa, bai erkidegoetakoa, batez ere, hezkuntzari loturiko esparru guztietan eta adin txikikoen hezkuntza-aukeretan.

4.2. PROPOSAMENAK

Politika publikoak hezkuntzan berdintasun eza desagerraraztera eta haur guztien sarbidea baldintza berdinetan ahalbidetzera bideratuta egon behar dira, erabakiak hartzeko garaian aktiboki parte hartzeko prozesuak sustatuz. Ikerketa eta azterlanen ondoren, Save the Children erakundeak honako proposamen-bilduma hau eskainiko du:

1^a Hezkuntzarako sarbidea bermatzea, hezkuntza-prozesua ikuspuntu zabalenetik behatuta.

Politika publikoak zeharkakoak izan beharko dira, eta barne hartuko dute ezagutza, osasun, kirol, kultura-jarduera eta aisialdi esparruetarako, eta, oro har, heziketa eta garapen pertsonala ahalbidetzen duen edozein esparrurako sarbidea.

EKINTZAK:

- a) Inbertsio publikoaren gutxieneko muga ezartzea, hala nola lurralde arteko kofesio-funtsa, autonomia-erkidego guztietan berdin bermatuta egon dadin hezkuntza ekitatibo eta kalitatezkoa.
- b) Legedia aldatzea, eskola-garapen onerako gastu ezinbesteko eta ez borondatezkoztat jotzeko egoera ahulenean dauden ikasleen hezkuntza-instalazioetara iristeko gastua, hala nola jarduera osagarrien ondoriozko gastuak, ikastetxeak antolatutako txangoak eta kultura-jarduerak, kasu.
- c) Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioaren lehentasunetako bat behar du izan beka-politikak, berdintasun ezak konpentsatzeko eta hezkuntza-eskubide funtsezkoa bere osotasunean gauzatzea bermatzeko.

d) Garraio, jangela, ikasmaterial, uniforme eta eskola-jarduera nahiz eskolaz kanpoko jarduerengatiko beka-eskubidea bermatzea Eragin Anitzeko Errenta Adierazle Publikoaren bikoitza gainditzen ez duen familia-unitateko adin txikikoei, baliabide ekonomiko horiek hezkuntza-prozesua amaitu arte ziurtatuta. Egoera berezietan, familia ugarien edo desgaitasunen bat duen senideren bat duten familien kasuetan, aipatutako marjina handitu egin ahalko da diru-sarrerak urteko Eragin Anitzeko Errenta Adierazle Publikoaren laukoitza izan arte.

e) Ikasliburuak gutxienez 5 ikasturtez ez aldatzea (kontrako arrazoirik ez badago) eta liburuen banku bat sortzea ikastetxe bakoitzean, ikasleek ikasliburuak maileguan, trukean edo berrerabileran jaso ditzaten.

2^a Ikastetxeetan eskolaratzea sustatzea, eskola-uztea ekiditen saiatzeko.

EKINTZAK:

a) Ikastetxeetan orientazio-programak antolatzea, ikasleak ikasten jarraitzearen onurez kontzientziatzeko.

b) Kontzientziazio-kanpainak ikastetxeetan zein komunikabideetan, hezkuntza gainerako eskubide guztiak ekitate-baldintzetan eskuratu eta gauzatu ahal izateko mekanismo eta bitarteko ezinbesteko gisa sustatzeko.

c) Familiei zuzendutako banakako planak diseinatzea, familiak adin txikikoen hezkuntzan inplikatzeko sustatuz. Gizarte-hezitzaileek garatu beharko dituzte plan horiek, familia-indargarri horren premia dagoela aurrez hauteman badute.

d) Egoera ahulenean dauden haurrei zuzendutako etxez etxeko bisita- eta aholku-sistema bat sustatzea.

3^a Kalitatezko haur-hezkuntza bermatzera bideratutako programak edo jarduerak ezartzea 0-3 urte arteko etapan zein 4tik 6ra bitartekoan.

EKINTZAK:

- a) Ikasplazak betetzea, adin-tarte horietako adin txikiko guztiei estaldura eman arte.
- b) Haurren irisgarritasuna bermatzea zerbitzuaren doakotasuna (edo gehikortasuna) beka edo diru-laguntzen sistema baten bidez bermatuta, familiaren diru-sarreraren arabera.
- c) Arreta berezia eskaintzea landa-guneei ikastetxe berriak eraikitzeko plangintzan, edo inguru horietan bizi diren adin txikikoak eskolara joatea bermatzeko formulak proposatzea.
- d) Lehen haurtzaroko arreta-zentroak, gainera, gutxika familien eta komunitatearen parte-hartze eta entzuketa espazio bihurtu behar dira.
- e) Egoera ahulenean dauden haurrei zuzendutako etxez etxeko bisita- eta aholku-sistema bat sustatzea.

4ª Adin txikiko guztiei jangela-zerbitzuaren irisgarritasuna (ekonomikoki eta hurbiltasunaren aldetik) eta zerbitzu horietan eskaintako dieten kalitate nutrizionala bermatzea.

EKINTZAK:

- a) Laguntzak eskatzeko prozedurak erraztea, prozesu geldo eta konplexutasun formal handikoak saihestuz, hezkuntza-maila txikieneko familiak de facto bazterten baitituzte.
- b) Estutasun ekonomikoak dituzten familien seme-alabei zerbitzua doan eskaintzea, pobrezia-atalasearen azpitik bizi diren adin txikikoei gutxienez egunean behin otordu egokia egingo dutela bermatzeko.
- c) Familiek inola ere ez dute aurreratu beharko eskola-jangela ordaintzeko laguntzen zenbatekoa. Bestela, aurrerakinik ezin eman dezaketen familiak laguntza-sistematik kanpo geratzen dira.
- d) Zerbitzua hedatzea (gosariak, meriendak), egoera ahulenetako neska-mutikoen mesedetan.

5. Adin guztietako adin txikikoei eskolaz kanpoko jarduerak bermatzea ikastetxeetan.

EKINTZAK:

- a) Prezio eskuragarrian eskaintzea adin txikikoei, oro har, eta doan, berriz, familiaren egoera ekonomikoagatik kuotak ezin ordaindu ditzaketenei.
- b) Beka-sistema bat ezartzea (eta diruz hornitzea), neska-mutiko guztiei jarduera horietarako sarbidea bermatzeko.
- c) Eskolaz kanpoko jardueren edukia eta kalitatea inplikaturako alderdi guztien artean adostu beharko da (ikasleak, familiak, ikastetxeak, toki-erakundeak, gaitasun eskumena duten administrazioak, etab.), jarduera horien diseinua eta plangintza elkarlanean osatuz.

6^a Ikastetxe erosoak bermatzea, ikastetxeetara joatea sustatzeko azpiegitura fisiko eta ingurune-azpiegitura egokiak bermatuta, eta horretarako beharrezkoa den aurrekontu-saila diruz hornituta.

EKINTZAK:

- a) Eraikinak berritzeko, birgaitzeko eta modernizatzeko edo irisgarritasuna hobetzeko –ekipoen eta materialen erabilerraztasuna barne– obrak egiteko premia duten ikastetxeei baliabide ekonomikoak ematea.
- b) Ikastetxeei laguntzea eta diru-laguntzak ematea, ikasmateriala erosteko, ekipo informatikoak erosi edo eguneratzeko, kirol-materiala eskuratzeko, eskola-liburutegia hornitzeko, etab.
- c) Baliabideak modernizatzea, irakasle nahiz ikasleen eskura jarriko diren tresna teknologikoetan inbertituta, balizko eten digitalak ekiditeko.
- d) Ikastetxera arteko bidea ez da inola ere ordu erdiko baina luzeagoa izango. Horretarako, doako garraio publikoa bermatuta izango dute hala behar dutenek.
- e) Landa-guneetako ikastetxeek berariazko neurriak hartu beharko dituzte, antolaketa egokituta, izaera berezikoak direnez. Hala, landa-gunetik kanpoko ikastetxeetan eskainitako kalitate-maila berdineko hezkuntza-zerbitzua jasotzeko eskubidea bermatu beharko dute.

7^a Ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza bermatzea.

EKINTZAK:

- a) Irakaskuntza pertsonalizatua indartzea, irakasleei ikasle bakoitzaren ezaugarri pertsonaletara egokitu ahal izateko bitartekoak eskainita.
- b) Irakasleen prestakuntza jarraituko planak diseinatzea eta gauzatzea, lehen haurtzaroan diharduten profesionalak barne hartuta. Mailaren araberako prestakuntza horrek ikuspegi didaktiko berritzaile eta inklusiboak barne hartu behar ditu, hala nola ikasleei arreta hobea eskaintzeko bitarteko eta metodologia pedagogiko berrienak, etab.
- c) Irakasleen birjartze-tasa ez dela mugatuko eta lanpostu hutsak berehala beteko direla bermatzea.
- d) Haurren prestakuntza indartzea, gizarte libre batean⁶⁴ bizimodu arduratsua izatera bideratuko dituen, aniztasunarekiko ulermena, bakea, tolerantzia eta errespetua eta giza eskubideak sustatuz, batez ere, desgaitasun, genero, sexu-joera, jatorri etniko edo nazional, ideologia, sinesmen erlijioso edo bestelako egoera pertsonalen ondoriozko bazterkeria ekiditeko.
- e) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntza eta arreta espezializatu eta egokitua emango zaiela bermatzea, prestakuntza jasotzeko aukera berdinak izan ditzaten.
- f) Eskola-uztearen aurkako eta hezkuntzaren bidezko gizarte-inklusionarako programak eta planak abiaraztea EBko 2014-2020 aldirako Azpiegitura Funtzen bitartez, Estatuako zein erkidegoetako administrazio publikoek funts horiek eraginkortasunez baliatuta.

⁶⁴ Genero-indarkeriari buruzko azken datuak ikusita, gazteen artean nabarmen handitu dira, ezinbestekoa da berdintasunean hezteari garrantzi handiagoa ematea; horren gaineko edukiak lehen hezkuntzako hirugarren mailatik (8 urte) derrigorrezko eskolaratzea amaitu arte landuz.

8ª Hezkuntzaz arduratzea ez dagokie bakarrik ikastetxeei.

Administrazio guztiak, familiak, elkarteak, kultura-sareak eta eragile ekonomikoak inplikatu egin behar dira eta hezkuntza-komunitateak sortu behar dituzte.

EKINTZAK:

- a) Haurtzaro- eta gazte-politika integral eta sektore anitzekoetan aurrerapausoak ematea, administrazio publiko guztien eta zerikusia duten zerbitzu publikoen (hezkuntza, osasuna, gizartea, gazteria, enplegua eta enplegagarritasuna) parte-hartze eta koordinazio eraginkorrarekin.
- b) Hezkuntza-pobrezia handieneko eremuetan edo gaietan jardutea, horretara bideratutako hezkuntza-jardueren programa integralak sortu eta ezarrita ikastetxeetan nahiz ikastetxeetatik kanpo.

9ª Hezkuntzako politika publikoen jardueren helburuko esparruaren gaineko ezagutza bermatzea.

EKINTZAK:

- a) Adierazle argi eta homogeen diseinatzea estatistika ofizial bat eratzeko, landu beharreko esparruaren gaineko ezagutza zehatza izateko beharrezkoak diren datuak agertuko direna.
- b) Serie historikoak osatzea, gaika, adierazleon bilakaera ezagutu eta dagozkien neurriak hartu ahal izateko. Serie historiko horien datuak gurutzatu egingo dira, besteak beste, hezkuntza elebidunak, jardun zatituak, ikasgelako ikasle-kopuruak eta integrazio-politikek emaitza akademikoetan zer eragin duten ezagutzeko.

10^a Gutxiengoak hezkuntza-prozesuetan integratzea eta sarbidea eskaintzea.

Ezin diogu ezikusi egin immigrazioari.

EKINTZAK:

- a) Gutxiengoek izan ditzaketen gabetasunak gutxitzeko berariazko planak diseinatzea, erabateko integrazioa bermatzeko.
- b) Kultura-bitartekaritzak eratzea nazionalitate edo etnia desberdineko adin txikikoen edo eskola- edo aisia-ingurunean sor daitezkeen adin txikikoen arteko balizko gatazkei aurre egiteko.

Hezkuntza da pobreziaren zirkulutik irteteko biderik ahaltuena. Hezkuntzan inbertitzea haurtzaroan inbertitzea da: neska-mutikoen oraingo eta etorkizuneko eskubideak bermatzen ditu.





Primary 2nd Cycle

INCLUDES
Stories and songs CD
and
CD-ROM

4 languages

Block Extra

MAPA SEUNDO OLO

OLO OLO





#InvertirEnInfancia
savethechildren.es/pobreza-educativa